

UDALAK 2011ko URRIAREN 26EAN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BATZORDEKIDEAK:

ALKATEA:

Luis Intxauspe Arozamena jn.

ALKATEORDEAK:

Idurre Conde Santa Cruz and.
Asier San Emeterio Otegui jn.

ZINEGOTZIAK:

Miren Kistiñe Lujanbio Galdeano and.
Aitor Miner Aginaga jn.
Iker Goenaga Gubia jn.
Beñat Amenabar Perurena jn.
Nahiara Sanchiz Arregui and.
Estefanía Morcillo Cerdan and.
Jose Ramón Chica Ramirez jn.
Andoni Amonarraiz Gómez jn.
Jose Antonio Cuesta Sole jn.

2011ko urriaren 26ean ohiko osoko bilera egin da Hernaniko Udaletxean, arratsaldeko 19:00etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bilera Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Arantxa Urain Mendiburu idazkaria.

KONTUHARTZAILEA:

Antxon Garcia Nadal jn.

IDAZKARIA:

Arantxa Urain Mendiburu and.

1.- AKTA ONARTZEA: 2011-09-27. - 2011ko irailaren 27an egindako osoko bilkurako akta onartu egin da, baina Euskal Sozialistak eta EAJ/PNV alderdiak abstenitu egin dira, bileratik alde egin zutelako.

2.- 2011KO IRAILAREN 22TIK 2011KO URRIAREN 20RA BITARTE HARTUTAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.
- 2011ko irailaren 22tik 2011ko urriaren 20ra bitartean pertsona bakarreko honako organo hauek hartu dituzten ebazpenen berri eman da.

- * Alkate jn.
- * Zerbitzu Publikoetako delegatu jn.
- * Kiroletako delegatu jn.
- * Hezkuntza eta Enpleguko delegatu and.
- * Politika Sozialeko delegatu jn.

Espresuki eman da alkatearen ebazpen honen berri:

DEKRETUA.- Hernanin bi mila eta hamaikako urriaren zazpian.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, apirilaren 21eko 57/2003 Legearen bidez aldatua baitago, 21.3 eta 23.4 artikuluen bidez ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

ERABAKI DUT

1.- Alkatetza honi dagozkion zenbait eginkizun, ondoren aipatzen den alorrekoa, ondoko udalkide honen **ESKU UZTEA:**

* IKER GOENAGA GUBIA. (BILDU): - **POLITIKA SOZIALA.**

2.- Eskuordetze orokor hauetan honako zeregin hauek sartzen dira, bakoitzaren alorreko gai eta zerbitzuei dagokienez:

- Eskuordetutako alorrari dagozkion baliabide fisikoak eta giza baliabideak zuzentzea, bultzatzea eta kontrolatzea, udalaren helburuak hobeto betetzeko.
- Eskuordetutako jardueraren alorrean erabakitako lan, zerbitzu eta hornikuntzak udalaren izenean zuzentzea, bultzatzea eta ikuskatzea.
- Alkatea ez dagoenean haren ordezkari izatea, norberaren eskuordetzearen arloan.
- Gainerako ordezkariekin bilerak egitea eta haiekin harremanetan egotea, informazioa elkartrukatzeko eta koordinaturik egoteko.
- Bere eskuordetze arloari dagozkion lege, ordenantza, erregelamendu eta udal erabakiak betearaztea.
- Bere eskumeneko arloan 24.040 eurorainoko gastuak egin ahal izatea, aurrekontuan baimendutako kredituen barruan.
- Bere eskumeneko arloan 24.040 eurotik beherako era guztietako kontratazio eta emakidak onartzea, aurrekontuan horretarako nahiko kontsignaziorik baldin badago.
- Obra eta zerbitzu egitasmoak onartzea, haiek kontratatzeko eta emateko ahalmena badu eta aurrekontuan aurreikusita badaude.
- Bere eskuordetzearen arloan beharrezkoak diren ebazpenezko nahiz izapidezko administrazio egintzak diktatzea, beste organoren bati ez badagozkio.
- Lege, erregelamendu, ordenantza eta udal erabakiekiko arau hausteak zigortzea, zeregin hori beste organoren bati ez badagokio.
- Eskuordetzearen indarrez egindako administrazio egintzen aurkako berraztertze errekursoak ebaztea.
- Edozein udal organori jarduketa proposamenak egitea.

3.- Eskuordetzea mugagabea da eta, onartua izanez gero, Ebazpen hau hartzen den egunean hasi eta, bukatu berriz, ebazpena ezesten denean, alkatearen agintaldia bukatzen denean edo uko egiteko idazkia aurkezten denean bukatuko da.

- 4.- Alkateak eskuordetzea ezetzatu ahal izango du.
- 5.- Alkateak edozein momentuan bereganatu ahal izango du eskuordetutako eskumena, administrazio prozedura erkideari buruz indarrean dagoen legeriaren arabera bidezko jotzen duen hedaduran.
- 6.- Kanpoan 24 ordutik gora eman behar izanez gero, asteburuak alde batera utzita, alkateari idatziz jakinarazi beharko zaio. Tarte horretan alkateak berreskuratuko ditu eskuordetutako eginkizun eta ahalmen guztiak.
- 7.- Alkateari dagokio zinegotzi-delegatuen arteko eskumen auziak konpontzea.
- 8.- Zinegotzi-delegatuen egitekoa izango da alkateari eskuordetuta daukaten eskumenaren kudeaketaren inguruko eta eskuordetzearen indarrez emandako egintza edo xedapenen inguruko informazio zehatza ematea.
- 9.-Zinegotzi-delegatuek garrantzi bereziko erabakiak hartu aurretik alkateari horien berri eman behar diote.
- 10.-Zinegotzi-delegatuek administrazio egintzak Ebazpen bidez emango dituzte, eta alkateak emandakotzat joko dira.
- 11.-Administrazio egintza bat diktatzen duen ebazpenetan espresuki jasoarazi behar da alkateak horretarako emandako eskuordetzeaz baliaturik diktatuak direla.
- 12.-Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da.
- 13.-Udalbatzari ebazpen honen berri eman behar zaio.
- 14.-Ebazpen hau irmoa da administrazio bidean. Honen kontra, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, nahi izanez gero, hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Edo, bestela, zuzenean jar daiteke errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzitarako sailean, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Horiez gain, bidezkotzat jotzen den beste edozein errekurtso ere jar daiteke.

3.- HERNANIKO UDALAREN AURREKONTUAREN 12/2011 ZENBAKIKO KREDITU ALDAKETAKO ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA (KREDITUEN TRANSFERENTZIA BIDEZKOA). - Alkatetzak 2011ko irailaren 27an emandako ebazpenaren berri eman da. Ebazpen horren bidez **12/2011** zenbakiko kreditu aldaketako espedientea onartu zen, Hernaniko Udalaren 2011ko aurrekontuaren partiden arteko transferentzia bidezkoa. Kopurua: 3.000 euro.

4.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIAK EMANDAKO EPAIAREN BERRI EMATEA, TELEFÓNICA MÓVILES ESPAÑA SAUK AURKEZTUTAKO 455/10 ZENBAKIKO ERREKURTSOA DELA ETA.- Udalbatzak izan du Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak Administrazioarekiko Auzitarako 455/10 zenbakiko errekurtsoan emandako epaiaren berri. Hona hemen:

"QUE DEBO DESESTIMAR, Y DESESTIMAMOS EL RECURSO INTERPUESTO POR TELEFONICA MOVILES ESPAÑA SAU, CONTRA LA ORDENANZA DE LA TASA POR LA UTILIZACION PRIVATIVA Y EL APROVECHAMIENTO DEL DOMINIO PUBLICO MUNICIPAL CON LOS SERVICIOS DE TELEFONIA MOVIL APROBADA POR EL PLENO DE AYUNTAMIENTO DE HERNANI EN LA SESION DE 23 DE FEBRERO DE 2010,

DECLARANDO LA CONFORMIDAD DE LA DISPOSICION RECURRIDA CON EL ORDENAMIENTO JURÍDICO. Y DESESTIMAMOS, IGUALMENTE, LA SOLICITUD DE PLANTEAMIENTO DE CUESTION PREJUDICIAL ANTE EL TRIBUNAL DE JUSTICIA DE LA UNION EUROPEA FORMULADA POR EL RECURRENTE; SIN IMPOSICION DE COSTAS."

5.- EAJ-PNV-K IZENDATUTAKO BATZORDE INFORMATZAILEETAKO ORDEZKO KIDEEN ALDAKETAREN BERRI EMATEA. Amonarraiz jaunak (EAJ-PNV) jakinarazi du batzorde informatzaileetarako ordezeko kide hauek aldatu direla:

- * Ogasuna eta Ondare Batzordea – Kontuetarako Batzorde Berezia Andoni Amonarraiz Gómez, Jose Antonio Cuesta Solé beharrean.
- * Hirigintza eta Ingurumen Batzordea: Andoni Amonarraiz Gómez, Maria Otaegi Vélez beharrean.
- * Kultura eta Turismo Batzordea: Andoni Amonarraiz Gómez, Maria Otaegi Vélez beharrean.

6.- ALKATETZAK 2010EKO IRAILAREN 26AN EMANDAKO EBAZPENA BERRESTEA. EBAZPEN HORI TXANTXANGORRI-EHIZA, ARRANTZA ETA TIRO ELKARTEAK JARRITAKO 314/2011 ZENBAKIKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOAN AGERTZEARI ETA LETRATUA IZENDATZEARI BURUZKOA DA. Alkatetzak ebazpen hau eman du:

"DEKRETUA.- Hernanin bi mila eta hamaikako irailaren hogeita seian.

TXANTXANGORRI-EHIZA ARRANTZA ETA TIRO ELKARTEAK Donostiako 1 zenbakidun administrazioarekiko auzi Epaitegian Administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri du Osoko bilkurak 2011ko martxoaren 31n hartutako erabakiaren kontra (Prozedura Arrunta 314/2011, N.I.G 20.05.3.-11/000936). Erabaki horren bidez ebatzi zen udalbatzak 2011ko otsailaren 22ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsua.

Horiek horrela, eman zaidan ahalmena erabiliz, honako hau

ERABAKI DUT:

1.- 20.05.3-11/000936 zenbakidun Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsua dela eta (314/2011 N.I.G.) Donostiako 1 zenbakidun administrazioarekiko auzi Epaitegian azaltzea, demandatu gisa, eta Mercedes Zulaica Galdos y Miguel Aperribai Zarautz letratu jaunak izendatzea errekurtsu horretan Hernaniko Udalaren interesak ordezkatu eta defendatzeko, horretarako prokuradoreen alde emanda dagoen ahalmen oro erabiliz.

2.- Ebazpen hau hurrengo Osoko bilkuran berrestea."

Hau erabaki da: ebazpena berrestea (Euskal Sozialistak abstenitu egin dira).

7.- TAXI ZERBITZUAREN TARIFAK 2012. URTERAKO. - Aztertu da Zerbitzu Publiko eta Merkataritza batzordeak 2011eko urriaren 17an emandako irizpena.

Hau erabaki da, Euskal Sozialistak eta EAJ-PNVren abstentzioarekin:

1.- Hernaniko auto-taxi zerbitzuari dagozkion hiri-tarifa hauek onartzea eta %3ko igoera aplikatzea.

-1 Tarifa , egunekoa:

Abiasaria: 4,8270 euro
Egindako kilometro bakoitzeko: 1,0262 euro.
Itxaron ordu bakoitzeko: 19,6926 euro

- 2 Tarifa , gauekoa:

Abiasaria. 5,8520 euro
Egindako kilometro bakoitzeko: 1,6438 euro
Itxaron ordu bakoitzeko: 30,9487 euro

- V Tarifa,

Abiasaria. 6,0276 euro
Egindako kilometro bakoitzeko: 1,6932 euro
Itxaron ordu bakoitzeko: 31,8772 euro

2.- Euskadiko Prezioen Batzordeari erabaki hau jakinaraztea.

8.- 2010. URTEKO AURREKONTUAREN KONTU OROKORRA. - Udalbatzako lehendakariak 2010. urteko aurrekontuen Kontu Orokorra azaldu du, horrekin batera haien likidazioak aurkeztu dituelarik. Likidazio horiek Alkatetzaren dekretu hauen bidez onetsi dira: 2011ko martxoaren 31koa (Udalaren aurrekontua), 2011ko maiatzaren 11koa (Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuaren aurrekontua) eta 2011ko martxoaren 28koa (Hernaniko Udal Kirol Patronatuarena); honenbestez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 62. eta 63. artikulua betez.

Era berean, kontu-hartzaileak dagozkion txostenak egin ditu, hau da: Udalaren aurrekontu propioaren likidazioari buruzkoa (2011ko martxoaren 30ekoa) eta "Hernaniko Udal Kirol Patronatua" erakunde autonomoaren aurrekontuaren likidazioari buruzkoa (2011ko martxoaren 28koa).

Halaber, "Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatu"ko gerenteak erakunde autonomo horren aurrekontuaren likidazioari buruzko txostena egin du 2011ko apirilaren 26an.

Ogasun eta Ondare batzordea-Kontuetarako batzorde bereziak 2011ko maiatzaren 16an egindako bileran 2010eko Aurrekontuaren Kontu Orokorrari aldeko txostena ematea eta jende aurrean jartzea erabaki zuen.

Kontu hori jende aurrean jarri zen 2011ko maiatzaren 20ko GAOn (95 zk.), iragarki bidez, eta erreklamazioak egiteko dagoen 15 eguneko epean ez da erreklamazio, eragozpen edo ohar bakar bat ere egin.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 62. eta 63. artikuluek xedatutakoa kontuan hartuta,

Aztertu da Ogasun eta Ondare - Kontuetarako Batzorde Bereziak 2011eko urriaren 19an emandako irizpena.

Hau erabaki da, Euskal Sozialistak eta EAJ-PNVren abstentzioarekin:

Hernaniko Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2010. urteko aurrekontuaren Kontu Orokorra onartzea. Kontu Orokorrak horrek ondorengo agiri hauek ditu:

- a) Egoeraren Balantzea.
- b) Galera eta Irabazien Kontua.
- c) Memoria, honakoa azaltzeko:
 - Finantzaketa-taula
 - Zorraren egoera
 - Informazio-eranskina; aurrekontuaren likidazioa eta Kontabilitate Orokorra erlazionatzen dituena.
- d) Aurrekontuaren likidazioa.

Egiaztaketa Balantzearen, Kreditu aldaketen egoera eta Egoeraren eta Balore Mugimenduaren Egoeraren Eranskinak.

9.- HERNANIKO UDALAREN 13/2011 ZENBAKIKO KREDITU ALDAKETAKO ESPEDIENTEA (KREDITUAREN HABILITAZIO BIDEZKOA). - Hernaniko Udalaren 2011ko aurrekontuaren barnean kreditu gaikuntzen erregimenaren bidez izapidetzen den **13/2011** kreditu aldaketarako espedientea aztertu dugu.

Espedienteko egoera orriskan biltzen diren eta espero zirenen gainetik jaso diren sarrera berriak edo handiagoak, hain zuzen, aplikagarria den foru araudian espreski zerrendatu dira, eta espedientean proposatutako gastu gehikuntza oso-osorik finantzatzen dute.

Halaber, Fondoek Kontu-hartzaileak egindako aldeko txostena ere aztertu dugu.

Aztertu da Ogasun eta Ondare – Kontuetarako Batzorde Bereziak 2011eko urriaren 19an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da EAJ-PNVren abstentzioarekin:

1.- Hernaniko Udalaren Aurrekontu kreditu gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko kreditu aldaketarako **13/2011** espedientea onestea, **15.437 euroko** zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera-orrian ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.

2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako kreditu aldaketa Fondoek Kontu-hartzaileak Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin islatzea.

10.- ORDENANTZA FISKALAK 2012.- Aztertu da Ogasun eta Ondare Batzordea-Kontuetarako Batzorde bereziak 2011ko urriaren 19an emandako irizpena.

Miner jaunak (Bildu) hau esan du:

Irizpide orokorra KPIren igoera (%3) aplikatzea izan da, salbuespenen batekin, esate baterako potentzia handiena duten ibilgailuen zirkulazio zergan, izan ere horietan igoera %5,75etik %10era arterakoa da.

Batzordean uraren igoera osoko bilkuran aurkezteko geratu zen; hauxe da gure proposamena:

Kontsumo-moten horniduraren inguruko tasen tarifentzat %4ko igoera orokorra eta 9. eranskinean jasotako zerbitzu desberdinen emakidaren inguruko tasen tarifarentzat %3ko igoera orokorra, salbuespenak salbuespen. Proposamenaren zehaztasunak ondokoak dira:

1. Zerbitzu desberdinen emakidaren inguruko tasen tarifak (zerbitzu kuota, udal sarearekiko hartuneak, sarera lotzeko eskubideak, eta kontagailuak aztertzea) 20. kalibre arte 2011ko tarifak mantentzen dira; 25 kalibretik gorakoei, hau barne, %3ko igoera.
2. Kontsumo- moten horniduraren inguruko tasen tarifak:
 - a. Etxeetako hornidura, 65 m³ arteko kontsumoei %4ko igoera; 65m³etatik gorakoei %7ko igoera
 - b. Merkatal eta garajeetako hornidurak, 35 m³ arteko kontsumoei %4ko igoera; 35m³etatik gorakoei %7ko igoera
 - c. Ostalaritza, industria, eta zerbitzu etako hornidurak, 65 m³ arteko kontsumoei %4ko igoera; 65m³etatik gorakoei %7ko igoera
 - d. Eraikuntza, obra eta zundaketako jardueretako hornidurak, %7ko igoera.
 - e. Sute aurkako hornidurak, %4ko igoera
 - f. Jabedun finak ureztatze eta igerilekuetako hornidurak, %7ko igoera
 - g. Udaletxeko eta bere Erakundeetako, Autonomiadunetako zein Patronatu etako hornidurak, 65 m³ arteko kontsumoei %4ko igoera; 65m³etatik gorakoei %7ko igoera
 - h. Ondoko talde etako hornidurak: Ikastetxe, ospitale, anbulatorio (Osakidetzaren menpean dauden osasun zerbitzuak), hirugarren adineko egoitza, Udalak aitortutako Auzo Elkarte, eta Udalaren Intereserako elkarteen erregistroan inskribatutako Elkarte, DYA eta Gurutze Gorria, 65 m³ arteko kontsumoei %4ko igoera; 65m³etatik gorakoei %7ko igoera.

Morcillo andreak (Euskal Sozialistak) hau esan du:

“2010eko ordenantza fiskalak aldatzeko aurkeztu zaigun proposamenean KPIren igoera orokorra planteatzen zaigu, %3a.

Proposamen hau, beste egoera ekonomiko batean bageunde, besterik gabe onartuko genukeen. Baina ez gaur egungo egoera ekonomikoan, kontuan hartuta, batetik, herriko familiek bizi duten egoera ekonomikoa eta, bestetik, orain eta hemen aurkeztutako proposamen hau izango dela udalak gure herritarren behar sozial gero eta handiagoei aurre egiteko 2012an emango dituen zerbitzuei eusteko eta berriak emateko diru-sarreraren zati handi bat markatuko digula.

Udal gobernua, gure iritziz, zerga eta tasei KPIa gaineratu besterik ez die egin, bakoitza banan-banan hartu eta aztertu gabe, lehentasunezkoak direnak eta ez direnak erabaki gabe.

Une honetan aztertzen ari beharko ginatekeena da zein zerga diren izoztu beharrekoak, edo, kasuren batean, zein bere horretan utzi beharrekoak, gure herritarren karga fiskala arintze aldera.

Era berean, udalak lehentasunezkoztat ez direla jo litezkeen zerbitzuak ematen ditu eta horien kostua herritarrek/erabiltzaileek zerbitzu horien gaitik ordaintzen dutenetik oso gora daude, eta herritar guztiek oro har beste kontzeptu batzuen gaitik ordaintzen dutenaren bidez estaltzen dira. Agian une honetan aztertu beharko litzateke zerbitzu hauekin eta zerbitzu hauen kostuekin zer egin. Baina udal gobernua ez du horrelakorik planteatu.

Horregatik, gure iritziz, planteatzen den hau udal taldeak hartu duen irtenbide eroso eta populista izan da, karga fiskalen birbanaketa soziala egiteko eskura zituen aukera guztiak kontuan hartu gabe.

Horrek, aldi berean, 2012rako aurkezten den aurrekontua aurtengoaren jarraipen laua izango dela susmarazten digu, KPIren igoera aplikatuta, eta epe ertainean udala gero eta gehiago zorpetzea ekarriko duena eta ziur aski hurrengo udal gobernua izatea gaizki geratuko denak zorpetze honi aurre egiteko herritarrei zorrak igo beharko dizkielako.

Baina, gutxienez, udal honetan BILDUren udal gobernuak ez du beste batzuetan bezala egin, hots, zergak izoztu eta, hainbat kasutan, jaitsi. Hori herritarrei begira ongi geratzeko modu bat da, baina herri oso baten bitartekoak kudeatzerakoan batere praktikoa ez dena.

Horregatik, bere burua "desberdintzat" jotzen duen eta modu desberdinak dituen gobernu batez espero genuena betetzen ez badu ere, bozketan abstenitu egingo gara, datorren urterako aurrekontua aurkezterakoan bestela jokatuko dutelakoan."

Honen inguruko hizketaldi baten ondoren Hirigintza eta Ingurumen batzordeak 2010eko urriaren 19an emandako irizpenaren bozketa egin du alkateak:

* Aldeko botoak: 8 (Bildu).

* Kontrako botoak: bat ere ez.

* Abstentzioak: 4 (2 Euskal Sozialistak, 2 EAJ-PNV).

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

Lehen.- Ordenantza fiskalen eranskin hauek aldatzea, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

1.ZERGAK:

1. 1.1 ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA

% 3ko igoera

Hirilur Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaizkion karga tasak:

- *Lurzoru erresidentzian kokatutako hiri ondasunak: ehuneko 0,1895*
- *Lurzoru industrial edo tertziarioan kokatutako hiri ondasunak: ehuneko 0,4771*

Landalur Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa ehuneko 0,9887koa da.

1.2 EKONOMI JARDUEREN GAINEKO ZERGA

Gutxieneko kuotak igotzeko %2,2 koefiziente mantentzen da

1.3 TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

% 3ko igoera, turismoen azken hiru tarifak ezik, (hauen igoera %5,%7,5 eta %10a da, hurrenez hurren)

TURISMOAK

igoera koef 2012 kuota

9 zaldi fiskaletik beherakoak	1,48	27,25
9 eta 11,99 zaldi fiskal bitartekoak	2,17	80,00
12 eta 13,99 zaldi fiskal bitartekoak	2,37	145,20
14 eta 15,99 zaldi fiskal bitartekoak	2,43	208,15
16 eta 19,99 zaldi fiskal bitartekoak	2,50	276,35
20 zaldi fiskaletik gorakoak	2,58	348,60

AUTOBUSAK

21 plaza baino gutxiago	2,30	191,30
21 eta 50 plaza bitartean	2,32	274,95
50 plaza baino gehiago	2,37	351,30

KAMIOIAK

1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak	2,29	96,90
1.000 eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	2,29	190,95
2.999 kg-tik gorako eta 9.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	2,31	274,40
9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	2,36	350,65

TRAKTOREAK

16 zaldi fiskal baino gutxiago	2,27	40,05
16 eta 25 zaldi fiskal bitartean	2,29	63,50
25 zaldi fiskal baino gehiago	2,29	190,50

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUAK

ERAMANDAKO ATOIAK ETA ERDI-ATOIAK

750 kg-tik gorako eta 1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak	2,27	40,05
1.000 eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	2,29	63,50
2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	2,29	190,50

BESTELAKO IBILGAILUAK

Ziklomotoreak	2,28	10,27
125 cm ³ bitarteko motozikletak	2,28	10,27
125 cm ³ baino gehiagoko eta 250 cm ³ bitarteko motozikletak	2,37	18,30
250 cm ³ baino gehiagoko eta 500 cm ³ bitarteko motozikletak	2,42	37,40
500 cm ³ baino gehiagoko eta 1.000 cm ³ bitarteko motozikletak	2,42	74,80
1.000 cm ³ -tik gorako motozikletak	2,42	149,60

1.4 ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA

Ondoko zergak ezarri dira:

Karga mota

1.- 21.000 eurotik beherako kostua duten obrak	0%
2.- . Erregimen Orokorreko Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko obrak	2%
3.- . Erregimen Tasatutako Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko obrak	3,5%
4.- 21.000 euro eta 150.000 euro bitarteko kostua duten obrak	4%
5.- 150.000 euro eurotik gorako kostua duten obrak	5%
6.- Nekazaritzako jarduerekin zerikusia duten instalazio edo eraikinetako obrak:	
- 21.000 euro eta 150.000 euro bitarteko kostua	1,32 %
- 150.000 eurotik gorako kostua	1,65%
7.- Nekazaritza jarduerarekin zerikusia duten etxebizitzetarako xedea duten eraikinetako obrak, betiere etxebizitza hori ustiapenaren titularraren ohiko etxebizitza gisa erabiltzen bada (dedikazio osoa duenean):	
- 21.000 euro eta 150.000 euro bitarteko kostua	1,32%
- 150.000 eurotik gorako kostua	1,65%
8.- Nekazaritza jarduerarekin zerikusia duten etxebizitzetarako xedea duten eraikinetako obrak, betiere etxebizitza hori ustiapenaren titularraren ohiko etxebizitza gisa erabiltzen bada (dedikazio partziala duenean):	
- 21.000 euro eta 150.000 euro bitarteko kostua	3%
- 150.000 eurotik gorako kostua	3,75%
8.- Dolarea izanik, sagardo naturala egiten duten eta "txotx" garai ofizialetik kanpo botilako sagardoa saltzea beste ustiapenik egiten ez duten sagardotegiek, handitzerik eragin gabe, lehendik dauden instalazio eta eraikinetan egindako obrak eta berrikuntzak	
- 21.000 euro eta 150.000 euro bitarteko kostua	1,32%
- 150.000 eurotik gorako kostua	1,65%

1.5 HIRILURREN BALIOAREN GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA.

Ez dago aldaketarik

2.- UDAL JABETZA PUBLIKOA OKUPATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK:

Ordenantza Fiskalaren ondoko eranskin hauen kuotak aldatuko dira:

2.1. IBILGAILUAK ESPALOIETAN ZEHAR FINKEN BARRUKO ALDERA SARTZEA ETA HORIEK BIDE PUBLIKOAN DUTEN APARKAMENDU ERRESERBA.

%3 ko igoera

2.1.1 Tarifak:

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euro</u>
a) Ibilgailuak espaloietan barrena sartzea (igarobide partikularrak, industria, garaje publiko eta kolektiboetarako igarobidea):	
-toki bakoitzeko	<i>8,40</i>
b) Bide publikoan espazioak erreserbatzea:	
- Metro linealeko edo zati bakoitzeko	32,90
c) Ibilgailua utzi nahiz aparkatzea debekatzea:	
- Metro linealeko edo zati bakoitzeko	16,45

2.2.- HORNIKUNTZA ZERBITZUAK USTIATZEKO ENPRESEK ORDAINDU BEHARREKO TASAK, UDAL JABETZA PUBLIKOKO LURRA, HEGADA ETA LURRAZPIA OKUPATZEAGATIK.

Karga-tasa mantendu egiten da

2.3. BIDE PUBLIKOEN APROBETXAMENDU BEREZIAK:

%3ko igoera

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euroak</u>
a) Kanpoko mahaiak (mahai bat eta lau aulkirentzat):	
Urteko iraupena, m2 edo zatiko	34,40
Urteko iraupena, m2 edo zatiko	22,85
b) Terraza, instalazio finkoekin (estalkidun itxitura, toldo, markesina edo antzekoak) m2 edo zatiko	<i>182,10</i>
c) Makina automatiko eta antzeko instalazioekin okupatzeko, aldi baterako edo behin betiko, unitatea (gehi 14,50 m2 urteko)	<i>12,70</i>
d) Bide publikoa okupatzea, hesi, salgai, aldamiu eta abarrekin	
Salgaiak, hondakinak, lurra, harea, materialak: m2 edo zatika eta eguneko	<i>2,20</i>
Hesiak, aldamiuak edo bestelako instalazio egokiak: m2 edo zatika eta eguneko	
Zakarrak, aldamiuak, edo bestelako instalazio egokiak. M2 edo zatika eta eguneko	<i>0,47</i>

Zutabe, eustaga edo eusteko beste hainbat elementu. Bakoitzeko eta hamabostaldiko edo zatika	3,55
e) Klean, salmenta postu finkoa:	7,50
Izozkiak (maiatzaren 1etik urriaren 31 arteko aldia)	366,60
Gaztainak (urriaren 1etik martxoaren 31 arteko aldia)	102,15
Txurro eta buñuelo postua (hileko edo zatika)	183,20
Gainontzeko baimendutako artikulua (m2ko edo zatika) eguneko	9,10
f) Jai nagusietan eta auzoetako jaietan barraka eta jolasguneekin okupatzea: hitzarmena Gipuzkoako Ferialarien Elkartearekin.	
g) Zirko ikuskizunak edo antzekoak:	
1.000 ikusleentzat, eguneko	229,00
1.000 ikusleentzat baina gehiago, eguneko	302,30
745 €ko fiantza bat ezarriko da, udal teknikoaren oniritzia jaso ondoren itzuliko litzatekena.	
h) Bide publikoa jaiegunetan okupatzea (San Joan, Inauteriak, San Inazio, etab.), Gipuzkoako Ferialarien Elkartearekin izenpetutako Hitzarmenaz kanpo geratzen diren postuak	
Bisuteria, larrukingintza, eskulangintza, arropa, etab. Metroko:	
* Eguneko	18,15
*Gai-eguneko	54,95
Hanburgesak, ogitartekoak, etab. Saltzea, metroko eta eguneko	28,30
i) Bide publikoa okupatzea kioskoekin, prentsa saltzeko postuekin, ONCEko kabinekin eta bestelakoak.	
Prentsa kioskoak, m2 bakoitzeko urtean	28,30
Prentsa saltzeko postuak, hilean	4,50
ONCEko kabinak:	
Hirigune zaharretan eta zabalkundeetan (1 eta 2 hirigintza eremuak) urtean	282,70
Gainerako kaleetan, urtean	169,60
j) Kutxazain automatikoak nahiz beste zerbaiten produkturen bat fatxadatik eskaitzen duten autozerbitzuak, instalazio bakoitzeko eta urteko	157,30
k) Jaurduerak ekonomikoak burutzen diren lokalean aurrekaldean utzitako elementuak, edo lurzorua aprobetxatzea salgaiak eta zerbitzuak irabazteko asmoz erakusteko edo banatzea.	
Eguneko okupazioa, m2 edo zatiko	0,28

2.4. ASTEKO FERIA ETA UDALETXEKO ARKUPEETAKO SALTOKIEZ BIDE PUBLIKOA OKUPATZEA

%3ko igoera

Kontzeptua	Euroak

a) Baserriko barazkiak, eguneko (metro linealeko) 2,9m X 2mko saltokia eguneko	0,74
b) Loreak, haziak eta eratorriak	4,60
c) Urdaiazpikoa, hestekiak oro har, gazta eta gurinak	18,45
d) Olibak, pepinilo eta antzekoak	11,65
e) Baserriz kanpolo barazkiak, hal nola baratxuri, patata, era guztietako fruta, meloi eta antzekoak	11,65
f) Fruitur lehorren, hala nola, mahaspasa, piku, ur, amanda eta antzekoak, eta arrautzen salmenta	11,65
g) Pastak, gailetak, konfitegia oro har	11,65
h) Txori, arrain, eta eskortako animalia txikien salmenta, kaiolak, arraintokiak eta animalia horientzako elikaiak	9,40
i) Zerri, behi eta zaldiak	4,60
j) Liburu, aldizkari, egunkari eta antzekoen salmenta	9,40
k) Kasete, disko eta antzekoen salmenta	16,35
l) Larrukiak, bisuteria, koadroak, jostailuak eta opariak	16,35
m) Nekazaritzako lanabesak eta	4,60
n) Nekazal lanetarako erremintak eta tresnak	18,45
ñ) Alfonbrak, tapizak, koltxoiak, ehunak, arropak oro har	13,80
o) Oinetako denda	13,80
p) Sukaldeko tresnak, burdindegia, kristalak, paper pintatuak, aterkiak eta antzekoak	13,80
q) Botilaratutako edari eta likoreak	39,40
r) Sagardo eta txakolinak	21,85
s) Eskulanak eta artisautza	9,40
t) Kosmetika eta drogeria	16,35

2.5. UDALETXKO ARKUPEETAN LOREAK SALTZEKO SALTOKIAK "SANTU GUZTIEN EGUNA".

%3ko igoera

Kontzeptua

Loreak saltzea eguneko

Euroak

65,00

3.1 AUTO-TAXI ETA GAINERAKO AKURA-IBILGAILUEN LIZENTZIA ETA BAIMEN ADMINISTRATIBOAK EMATEA

%3ko igoera

<u>Kontzeptua</u>	
Auto-taxietarako lehen lizentzia	483,30
Auto-turismoen lehen lizentziak	483,30
Abonu eta zerbitzu berezi eta abonuetarako lehen lizentziak	483,30
Eman diren eta indarrean dirauten lizentzien transmisioak plaza kopurua bereizi gabe, gehi %10 transmisioa egiten den diru kopuruaren gain	966,55
Emandako lizentzia duten ibilgailuen ordezkapena	375,05
Ibilgailuen urteroko berrikustapenak	19,45
Gidari baimenak luzatzea	19,45

3.2.- HIRIGINTZAKO LIZENTZIAK EMATEA

%3ko igoera

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euroak</u>
600 € eta 6.000 € bitarteko aurrekontua duten obretarako lizentziak	68,60
6.001 € eta 21.000 € bitarteko aurrekontua duten obretarako lizentziak	251,50
21.000 €-tik gorako aurrekontua duten obretarako lizentzia	691,55
Lehen erabilerako lizentziak:	
Etxebizitza bakoitzeko	68,60
Merkataritza lokalak: eraikitako m2 bakoitzeko	1,18
Hirugarren sektoreko erabilerako lokalak: eraikitako m2 bakoitzeko	0,72
Garaje plaza bakoitzeko	14,30
500 m2 edo gutxiagoko azalera duten industria bakoitzeko	345,75
500 m2-tik gorako azalera duten industria bakoitzeko	691,55
Lerrokadurak, fatxadako metro lineal bakoitzeko	7,85
	%30
Aurreko lizentziak luzatzea edo eskualdatzea, kuota likidoaren kopuruaren ehunekoaren arabera lurzatiketa/banatzea	206,90
Merkataritzarako lokala etxebizitza izatera aldatzeagatik edo alderantziz eskuratu beharreko lizentzia	206,90
Lur mugimenduak egiteko lizentzia	453,20

3.3.- HIRIGINTZA GAJETAN LIZENTZIAK, BAIMENAK ETA ESPEDIENTEAK LUZATU ETA EMATEA

%3ko igoera

<u>Kontzeptu</u>	<u>Euroak</u>
Hirigintza kuotak kobratzea	2.017,35
Konpentsazio Batzordearen aldeko desjabetze espedienteak	1.835,55
Udalari urbanizazioa lagatzea	5.967,40
Aurri espedienteak	1.302,75
Planeamenduko elementuen aldaketa: Ogasun eta Ondare batzordeak kasu bakoitza aztertuko du, administrazio kostuaren balorazioaren txostena egin ondoren	

3.4 ESTABLEZIMENDUAK IREKITZEKO ETA INSTALAZIOAK EZARRI EDO ALDATZEKO LIZENTZIAK

%3ko igoera

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euroak</u>
Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren arabera jarduera lizentzia eskuratzetik salbuetsita dauden jardueren irekiera lizentziak	
1. Merkataritza eta zerbitzuetako lokalak	469,60
2. Nekazaritzako jarduerak	447,55
3. Abeltzaintzako jarduerak	447,55
Jarduera lizentziak eta irekiera lizentziak	
1. Ostalaritza	806,85
2. Finantza erakundeen lokalak	1.055,85
3. Merkataritza eta zerbitzuetako lokalak	806,85
4. Industri jardueretarako lokalak	1.055,85

5. Nekazaritzako jarduerak	768,00
6. Abeltzaintzako jarduerak	768,00
7. Garaje jardueretarako lokalak (garaje plaza bakoitzeko)	28,40
Titular berari dagoeneko emandako eta lizentzia berririk eman behar izatea ez dakarten jarduera legeztatzeak edo handitzeak	
Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorraren arabera jarduera lizentzia eskuratzetik salbuetsita dauden jardueren irekiera lizentziak	
Jarduera lizentziak eta irekiera lizentziak	447,55
Instalazioak legeztatzea, jartzea edo aldatzea (ur biltegiak, haize egokitua, etab.)	806,85
Lokalen eskualdaketak edo titular aldaketak, jarduera berari eusten bazaio eta jarduera eta irekiera lizentziak indarrean dagoen legediaren arabera baldin badauzkate Lizentzian aldaketaren gai den jarduerari dagokion kopurua	%50

3.5 SU ITZALKETA ETA HERRI BABESERAKO ZERBITZUAK:

%3ko igoera

Kontzeptua	Euroak
Zerbitzu arduraduna, orduko	39,95
Zerbitzuko kideak, orduko	34,95
Motobonba, orduko	76,80
Mahukak, metroko	9,90
Edapen handiko aparra isurtzea, erabilitako 20 kiloko bidoi bakoitzeko	217,90
Ibilgailua, orduko	11,50
Motozerra, orduko	4,00
Tresneria elektrogenoa, orduko	7,70
Eskailerak, erremintak, sokak eta abar, orduko	3,80

3.6 UDAL HILERRIAN ZERBITZUAK ETA EMAKIDAK GAUZATZEA.

2011ko tarifak mantendu egiten dira

3.7 SANEAMENDUKO ZERBITZUA

Tarifak igotzeko proposamena pendiente geratuko da, Añarbeko Mankomunitatearen azken datuak ezagutu arte

Saneamenduko zerbitzuarengatik ordaindu beharreko diru kopurua ur kontsumoagatik ordaindu beharreko zenbatekoaren %75ekoa izango da (zergak sartu gabe)

3.8 HONDAKINEN BILKETA

%3ko igoera

ETXEBIZITZAK			
Zerbitzua	Asteko zerbitzu	Tarifa koefiziente	2012€/seihilekoa TARIFA

	<i>a</i>	<i>a</i>	
Hiriguneko etxebizitzak	7	1	43,80
Hiriguneko etxebizitzak, autokonpostatuz	4	0,6	26,30
Landa eremuko etxebizitzak	7	0,7	30,65
Landa eremuko etxebizitzak,autokonpostatuz	4	0,42	18,40

MERCATAL ESTABLEZIMENDUAK					2012Tarifa €/seihilekoa	
Asteko zerbitzua					Arrunta €	Errefusa €/kg
Zerbitzua	Organikoa	Ontzi arinak	Pap/kar t	Errefusa		
Sortzaile txikia (10 l. Ontzia +gurpilik gabeko ontziak)	3	2	1	1	52,55	0,13
Sortzaile txikia (10 l. Ontzia +gurpilik gabeko ontziak)	3	2	1	1	52,55	0,37
<i>materia birziklagarria nahastua badago</i>						
Sortzaile handiak (10 l. Ontzia + ontziak gurpilekin)	3	2	2	1	144,45	0,13
Sortzaile handiak (10 l. Ontzia + ontziak gurpilekin)	3	2	2	1	144,45	0,37
<i>materia birziklagarria nahastua badago</i>						
Sortzaile handiak	3	2	2	1	189,10	0,13
Sortzaile handiak	3	2	2	1	189,10	0,37
<i>materia birziklagarria nahastua badago</i>						
Sortzaile handiak	4	2	2	1	315,20	0,13
Sortzaile handiak	4	2	2	1	315,20	0,37
<i>materia birziklagarria nahastua badago</i>						

Tamaina handiko hondakinak atez ate biltzea zerbitzu bakoitzeko	12,61
---	-------

3.9 UR HORNIDURA-

9.1. UR HORNITZEA, Tarifak, lauhilabeteko zenbatze.

- Zerbitzu-kuota finkoa.

Kuota hau ur hornikuntza zerbitzua abonatuaren eskura jartzeari dagokio, eta kontagailuaren kalibrearen arabera ezartzen da. Kuota uraren pasabide sekzioarekiko proportzionala da eta, horrenbestez, erabiltzaileak erabilgarri duen ur emariarekiko.

Kalibrea milimetroetan	
13	18,18
15	20,84
20	21,42
25	27,40
30	36,95
40	47,70
50	56,05
65	99,00

- **M3ko kontsumo**, erabiltzailearen eta zatien arabera bereiztu beharko da.

1.- Etxeetako hornidura, hiri-lurrean eta landa-lurrean (baserriak)

65 m3 arte	0,53
65 m3 baino gehiago	1,01

2.- Merkatal eta garajeetako hornidurak

35 m3 arte	0,70
35 m3 baino gehiago	1,16

3.- Ostalaritza, industria, eta zerbitzuetako hornidurak

65 m3 arte	0,98
65 m3tik gora 600 m3ra bitartean	1,81
600 m3 baino gehiago	2,18

4.- Eraikuntza, obra eta zundaketako jardueretako hornidurak

50 m3 arte	1,55
50 m3 baino gehiago	1,99

5.- Sute aurkako hornidurak

Zatirik gabe: **0,46 €** x m3 (estolderian salbuetsita)

6.- Jabadun finkak ureztatze eta igerilekuetako hornidurak.

500 m3 arte	1,70
500 m3 baino gehiago	2,14

7.- Udaletzeko eta bere Erakundeetako, Autonomiadunetako zein Patronatuetako hornidurak

Etxeetako kuota

65 m3 arte	0,53
65 m3 baino gehiago	0,98

8.- Ondoko taldeetako hornidurak: Ikastetxe, ospitale, anbulatorio (Osakidetzaren menpean dauden osasun zerbitzuak), hirugarren adineko egoitza, Udalak aitortutako Auzo Elkarte, eta Udalaren Intereserako elkarten erregistroan inskribatutako Elkarte, DYA eta Gurutze Gorria,

Etxeetako kuota

65 m3 arte	0,53
65 m3 baino gehiago	0,98

9.2 UDAL SAREAREKIKO HARTUNEAK

1.- Obra hartuneak

Obra hartunerako zein behin betikorako zenbateko berdinak eskatuko dira, eta, erabilitako kalibrearen arabera izango dira zenbatekoak horiek.

2.- Behin betiko hartuneak

1.2 kalibre mota

15 mm-rainokoak	263,13
20 mm	315,75
25 mm	379,45
30 mm	487,85
40 mm	596,25
50 mm	704,65
60 mm	813,05
60 mm suterako	433,60
80 mm	975,65
80 mm suterako	487,85
100 mm	1.084,10
100 mm suterako	596,25

3.- Behin betiko hartuneak ordeztu edo handiagotzeagatik eskaturiko hartunearen prezioetik benetan ezarritako hartunean preziora dagoen tarte

9.3. SARERA LOTZEKO ESKUBIDEAK

Tasa hau ordaindu beharra sorraraziko da jabeek, lehen erabilera eman ondoren, bere ondasun higiezinerako ur hornidura eskatzen duenean, Udalaren Ur Zerbitzuko Araudian ezarritakoaren arabera.

Horrela, kontratua izenpetu aurretik, eskatzaileak tasaren autolikidazioa aurkeztu beharko du.

15 mm	84,20
20 mm	126,30
25 mm	189,70
30 mm	271,00

40 mm	379,45
50 mm	639,60
50 mm suterako	352,30
60 mm	813,05
60 mm suterako	444,50
80 mm	948,55
80 mm suterako	477,00
100 mm	1.138,30
100 mm suterako	569,15

9.4. KONTAGAILUAK AZTERTZEA

Tasa hau ordaindu beharra sorraraziko du kontagailua egiaztatze eskaera eskatzen denean, erreklamazioak kudeatzeko garaian,. Kudeaketa hori honela egingo da:

- abonatutakoak erreklamazioa idatziz egin beharko du, eta erreklamazioari irtenbide egokia emateko bidezko jotzen dituen gauza guztiak adierazi beharko ditu. Hilabeteko epea dauka, gehienez ere, borondatezko ordainketa egiteko epea bukatzen denetik aurrera.
- Erreklamazioa aurkezten bada ere bilketa prozedura ez da entengo, salbu eta zerbitzua ematen duen enpresak lekuan bertan ur kontagailuren baten egiaztatze txostena egin behar izatea gertatuz gero. Hori gertatuz gero erreklamazioegileak zerbitzuaren kostua ordaindu beharko du. Hauxe da:

Diametro

Euro

13 mm	42,10
15 mm	47,36
20 mm	52,63
25 mm	59,60
30 mm	65,05

3.10.-HAURRESKOLAKO JANGELA

Ez dago aldaketarik

3.11.-"HERNANI" MUSIKA ESKOLA PUBLIKOA ETA "KANTUZ" MUSIKA ESKOLA

Ez dago aldaketarik

3.12.- BITERI KULTUR ETXEKO TAILERRAK

Ez dago aldaketarik

3.13.- UDAL EUSKALTEGIA

Ez dago aldaketarik

3.14. UZTAILEKO UDALEKUAK

%3ko igoera

Kontzeptua

Euroak

Kanpamendu irekien matrikula

92,45

92,45

Udako jardueren matrikula

3.15 "HERNANIKO OSASUN ETA GIZARTE ONGINTZARAKO UDAL PATRONATUA" ERAKUNDE AUTONOMOKO ZERBITZUAK ERABILTZEA

Igoera : 3%

15.1. ZAHARREN EGOITZA

5.- Tasen zenbatekoa

- Zaharren egoitzan 1998ko urtarrilaren 1a baino lehen onartutako egoiliar gaituak: 26,60€/egun.
- Zaharren egoitzan 1998ko urtarrilaren 1etik 2004ko abenduaren 31 bitarte onartutako egoiliar gaituak: 35,92€/egun.
- Zaharren egoitzan 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera sartutako egoiliar gaituak: 66,19€/egun.

15.2. EGUNEKO ZENTROA

5.- Tasen zenbatekoa

1.- Eguneko zentroko egonaldiaren tasa.

1.1.- Lanegunak: astelehenetik ostiralera:

Egoiliar gaituak: 33,41 euro pertsonako eta eguneko.

1.2.- Asteburu eta jaiegunak:

Erabiltzaile gaituak: 41,77€ pertsonako eta eguneko.

2.- Ekonomia-ekarpena.

Egoiliarrak gutxienez ere 4,02 euro ordainduko ditu eguneko, familia unitatearen irabaziak edonolakoak izanda ere. Tasa hileroko likidatuko da, eta hori ezin izango da 801,82 euro baino handiagoa izan.

8.- Eguneko Zentroan ematen diren hainbat gehigarritzko zerbitzu, onuradunak ez direnentzako:

Otorduak:

Gosaria: 1,70€

Bazkaria: 3,65€

Merienda: 1,30€

15.4. SANDIUSTERRI EKITALDI ARETOA

A. Lanegunak: astelehenetik ostiralera:

- I. epigrafea.- Ekitaldi aretoa erabiltzea ikus-entzunezko materialik gabe: 28,94€/ordu.

- II. I. epigrafea.- Ekitaldi aretoa erabiltzea ikus-entzunezko materialarekin: 56,65€/ordu.
- III. B. Asteburu eta jaiegunak
- I. epigrafea.- Ekitaldi aretoa erabiltzea ikus-entzunezko materialik gabe: 32,60€/ordu.
- II. epigrafea.- Ekitaldi aretoa erabiltzea ikus-entzunezko materialarekin: 65,15€/ordu.

15.5. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Lanegunak: Gipuzkoako Foru Aldundiak izango duen KPIaren gehikuntza.

Igande eta jaiegunak: Gipuzkoako Foru Aldundiak izango duen KPIaren gehikuntza.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuari 2011ko lehenengo hilabetean jakinaraziko dio zein izango den zerbitzu ordu bakoitzeko tasa handiena.

15.7. GIZARTE LOJAMENDUAREN ZERBITZUA

10. puntua sartzea:

10. Hobaria

Erabiltzailearen urteko diru-sarrera gordinak 8.979,60 euro baino gutxiago baldin badira, Zuzendaritza Batzordeak kasu bakoitzari aplikatuko dio txosten sozialaren arabera.

3.16 . "HERNANIKO UDAL KIROLDEGIKO ZERBITZUAK ERABILTZEA

Igoera : 3%

a) Kiroldegian hamabi hilabetez abonaturatuen kuotak:

	2012
- Familiarra	220,60
- Banakakoa	146,05
- Adintxikikoa	91,60
- Kirolaria federatua	17,60

b) Kiroldegian sei hilabetez abonaturatuen kuotak:

	2012
- Familiarra	143,40
- Banakakoa	94,85
- Adintxikikoa	59,55

d) Kiroldegian abonaturatuek uda garaiko aisialdi eta jolas igerilekuak erabiltzeagatik ordaindu beharreko gehigarria:

	2012
- Familiarra	68,40
- Banakakoa	45,20
- Adintxikikoa	29,90

e) Udako denboraldiko abonatuak aisialdi eta jolas igerilekuak:

	2012
- Familiarra	135,75
- Banakakoa	89,40
- Adintxikikoa	55,15

	2012
f) Kanpoko kirol instalazioen erabilpen kuota (hitzarmena).	
- Kirolari federatuak	17,60 €

g) Erabiltzaileentzako zerbitzuak:

	2012	
	Abonatuak	Abonatu gabekoak
- Adingabearen sarrera		3,45
- Adindunaren sarrera		5,45
- Jolas igerilekua, 18 urtez behekoa		4,75
- Jolas igerilekua, 18 urtez gorakoa		6,95
- Jolas igerilekua, 3 urtez behekoa		2,30
- Sauna, saio 1	3,40	3,40
- Sauna, 5 saio	15,15	
- Sauna, 10 saio	26,60	
- Squasha, saio 1	4,75	4,75€
- Squasha, 5 saio	19,50	
- Squasha, 10 saio	33,85	

	Abonatuak	Abonatu gabekoak
Pilotalekua, ordu 1	10,65	10,65
Pilotalekuko argia, ordu 1	5,85	5,85
1. pista	26,85	36,85
2. pista	31,50	31,50
Igerilekuko kale 1	31,50	31,50
Kaiolako giltza galtzea edo puskatzea	76,15	76,15
Takilako giltza galtzea edo puskatzea	4,75	4,75
Karneta galtzea edo puskatzea	3,15	3,15

h) Abonatuentzako ikastaroak:

- hilerokoak

	2012
Jaioberrientzako igeriketa, astean 2 egun	44,15
3-4 urte bitarteko haurrentzako igeriketa , astean 2 egun	55,15
3-4 urte bitarteko haurrentzako igeriketa , astean 3 egun	83,00
3-4 urte bitarteko haurrentzako igeriketa , astean egun 1	27,60
5 urtetik gorako hasiberrientzako igeriketa	75,35
Hasiberrientzako igeriketa	54,10
Hargintza-igeriketa	44,35
Bizkarrezurra	44,35

- 10 hilabetekoak (2012-2013)

	2012
Ikastaroak, astean 150 minutu	263,20
Ikastaroak, astean 100 minutu	197,10
Ikastaroak, astean 50 minutu	98,25
Indoor walking-a, pilatesa, b. training-a,GAP-BOSU, Konbinat.	340,10
3. adina	55,15

Ikastaro horietako edozeinen iraupena luzatuko balitz, edota jarduera hasteko eguna baino hilabete beranduago hasiko balitz, izena emateko tasagatik ordaindu beharrekoa ikastaro osoagatik ordaindu beharreko tasaren zati proportzionala izango da.

- Besterik

Muskulazio programa	11,00 €
Muskulazio programaren kontrola	5,50 €

i) Abonatu gabeentzako hileroko ikastaroak:

	2012
Jaioberrientzako igeriketa, astean 2 egun	93,75
3-4 urte bitarteko haurrentzako igeriketa , astean 2 egun	92,35
3-4 urte bitarteko haurrentzako igeriketa , astean 3 egun	138,60
3-4 urte bitarteko haurrentzako igeriketa , astean egun 1	46,25
5 urtetik gorako hasiberrientzako igeriketa	124,40
Hasiberrientzako igeriketa	92,90
Haurgintza-igeriketa	71,90
Bizkarrezurra	71,90

j) Udako jarduerak:

	2012
Aerobica, Ziklo indoor eta abar 3 egun	26,25
Indoor walking-a, pilatesa, body training-a, tenisa 3 egun	51,00
Indoor walking-a, pilatesa, body training-a, tenisa 2 egun	34,25

k) igeriketa gaiak:

	2012
Ehunezko bainu-txonoak	2,85 €
Silikonazko bainu-txanoak	4,20 €

l) Kiroldegiko instalazioak alokatzeko prezioak: Ikuskizunetarako, kirolazkanpoko emanaldietarako edo maila profesionaleko kirol ekitaldietarako: Pilotalekua edo kirol pistak, ordu bakoitzeko.

	2012
Astegunetan, 22:00ak arte	93,50
Astegunetan, 22:00etatik 06:00 arte	144,85
Igande edo jaiegunetan 22:00 arte	105,80
Igande edo jaiegunetan 22:00etatik 06:00 arte	161,80

Ordu extrak	215,40
Fidantza	1.737,60

Alokatzeko eskaria egiterakoan hitzartutako orduak baino gehiago irauten badu ekitaldiak, ordu bakoitzarengatik edo gainditutako ordu-zatiagatik **211,12 €** ordaindu behar du antolatzaileak.

-Antolatutako ikuskizunetan, kirolez kanpoko ekintzetan edo kirol-ekintza profesionaletan, publizitatearengatik, irudi-eskubideengatik edo sarrera-salmentarengatik diru-sarrerarik balego, bildutako diru-kopuruaren %10 ordaindu behar da.

-Pilotalekua edo instalazioak behar bezala erabiliko direla bermatzeko, **1.737,60** eurotako fidantza ordaindu behar da.

-Fidantza hori udal kiroldegiko bulegoetan ordaindu behar da, dena delako ikuskizuna edo ekintza egin baino lehen, legeak agindutako eran.

- Ordaindu beharreko guztiak ordaindu eta kirol-zuzendariaren aldeko txostena jaso ondoren itzuliko da fidantza.

- Irabazi asmorik gabeko elkarteek eskatzen eta antolatzen dituzten ekitaldietan, ekitaldi hutsak benetan irauten duen denbora baino ez dute ordaindu behariko antolatzaileek; esan nahi da tarifak ez diola ukituko ekitaldia antolatu ahal izateko behar den muntatze eta desmuntatzeko denborari

II) Tarifak aplikatzeko arauak

1.- Zerga-onurak.

Kiroldegiko abonatuaren kuotetan ordenantzako 7. artikuluko 2. paragrafoko a) idatz-zatian xedatzen diren onurak aplikatuko dira.

2.- Abonoen ordainketa.

Kiroldegiko abonoak izen ematea egiterakoan ordainduko dira, kreditu txartel bidez edo dagokion diru kopurua Hernaniko Udalaren dauden kontu korranteetan sartuz. Abonoak 6 edo 12 hilabetetarako izango dira, dagokion kuota ordaintzen denetik aurrera.

Abonoen ordainketa helbideratu ere egin ahal izango da. Abonoa ordaintzeko modu hau aukeratuz gero ulertzen da abonoa beste epe berdin baterako automatikoki berrituko dela, bazkideak espresuki baja eman nahi duela adierazten ez badu.

Hamabi hilabeteko abonuen kuotak bi edo lau ordainketatan zatitu ahal izango dira, helbideratuz gero bakarrik. Zati bakoitza 6 edo 3 hilabeteko fakturatuko da, hurrenez hurren. Abonuaren iraunaldia urte naturaletik gorakoa baldin bada, hurrengo urtearen epe edo zatiak ekitaldi horretarako ezarritako kuoten prezioak kontuan hartuta kalkulatuko dira.

Bazkideek pilotalekua, squasha eta kirol anitzetako pistak doan erabili ahal izango dituzte, libre baldin badaude, eta alokairu edo erreserba bidez norbaitek erabili behar dituen arte.

Kirolari kuotaren barruan sartzen diren bazkideek Kirol Delegatuak onartutako egun eta orduetan bakarrik erabili ahal izango dituzte Udal Kiroldegiko instalazioak.

m) Tarifak aplikatzeko araua:

1- Ikastaroetan izena ematea

Ikastaroetan izena ematea era honetara ordaindu behar da:

Hilabeteko ikastaroak :

Kuotaren %100 ordaindu behar da izena ematerakoan. Ordainketak Udalaren kontu korrontean egin behar dira, eta ordainagiriak kiroldagiko bulegoetan aurkeztu behar dira. Ordainketak kreditu-txartelarekin ere egin daitezke.

Iraupen luzeko ikastaroak

3-4 urtekoentzako igeriketa ikastaroak: Ikastaroaren kuotaren %50, izena ematean; ordainketa Udalaren edozein kontu korrontetan egin eta ordainagiria aurkeztu behar da, edota kreditu-txartelaz egin.

Kuotaren gainerakoa, %50, ikastaroaren bigarren hilean, aurrean aipatu den moduan

Gainerako ikastaroak (iraila-ekaina; urria-ekaina) :

Iraupen luzeko ikastaroen kuotak modu hauetan ordain daitezke:

Ordainketa bakarra: kuotaren % 100 izena ematean ordainduko da. Ordainketa dagokion zenbatekoa Udalaren kontuetan sartuz egingo da, gero horren ordainagiria aurkeztu beharko delarik, edo kreditu txartelaren bidez.

Izena behin jarduera hasita ematen denean dagokion parte proportzionala ordainduko da, altaren dataren arabera. Horretarako, lehenengo hilabeteko kuota kalkulatzeko hilabete osokotzat hartuko dira 1etik 15era egindako izen-emateak eta hilabete erdikotzat 16tik 31ra egindakoak.

Zatikako ordainketa: Oro har, ikastaro guztietarako ordainketa bankuan edo aurrezki kutxan helbideratuz egingo da. Kuota bost zatitan ordainduko da, bakoitza ikastaroaren kuota osoaren %20koa. Lehenengo hiru zatiak abenduaren 31 baino lehen fakturatuko dira eta gainontzeko biak hurrengo urteko martxoaren 31 baino lehen.

Izena behin jarduera hasita ematen denean, kuota zatitu ahal izango da jarduera fakturatzeko geratzen diren zatietan. Zati bakoitzaren zenbatekoa talde osoarentzat ezarrita dagoena izango da, lehenengoa izan ezik, honetan alta-dataren arabera ordainduko baita dagokion zatia, kontuan izanda lehenengo hilabeteko kuota kalkulatzeko hilabete osokotzat hartuko direla 1etik 15era egindako izen-emateak eta hilabete erdikotzat 16tik 31ra egindakoak.

Pilates, Indoor-Wolkin, Body-Training, GAP-Bosu, Konbinatu eta honelakoetan, kobrantza jarduerak irauten duen hilabete kopuruan zatituko da, kontuan izanda lehenengo hilabeteko kuota kalkulatzeko hilabete osokotzat hartuko direla 1etik 15era egindako izen-emateak eta hilabete erdikotzat 16tik 31ra egindakoak.

Iraupen luzeko ikastaroetan izena ematea, ordaintzeko aukeratu den bidea edozein izanda ere, ikastaro osorako dela ulertuko da eta, ondorioz, ordainketa-zati guztiak ordaindu behar dira, ikastarora joan ala ez kontuan izan gabe.

Zatiren bat ez ordaintzeak hori kobratzeko espedientea irekitzea ekarriko du. Espedientea irekitzen denetik eta amaitzen den arte, abonatuak eskubide guztiak galduko ditu.

4.- Itzulketak - Bajak

Kiroldegiko abonua: Abonua indargabetzen denean, ez da dirurik itzuli edo konpentsatuko. Abonua indargabetzea Udal Kiroldegiaren arrazoiz gertatu denean baino ez da itzuliko edo konpentsatuko ordaindutakoa.

Hilabeteko ikastaroak: Behin ikastaroa hasita ezin izango da baja eskatu eta dagokion dirua itzuli.

Izen-ematearen %100 itzuliko da, baja eta itzulketa ikastaroaren hasiera baino lehen istripuagatik edo gaixotasunagatik eskatzen denean, horretarako ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Iraupen luzeko ikastaroak: Jarduera hasi eta astebetera ezin izango da eskatu ez bajarik, ez ordaindutako diru kopuruen itzulketarik.

Hala eta guztiz ere, ikastaroetan izena eman dutenek, lehen aipatutako epea igarota, ikastaroan baja eskatu ahal izango dute idatziz eta hau onetsia edo ezetsia izango da Kirol Delegatuak emango duen Ebazpenaren bidez, aurkeztutako arrazoiak baloratu eta gero.

Kirol Patronatuak eskatzaileari eskatu ahal izango dio bere ustez beharrezkoa den dokumentazio guztia, baja eskatzearen arrazoiak justifikatzeko.

Ikastaro osoa edo zatia indargabetzea ikastaroa antolatu duenaren arrazoiz gertatzen bada, izena emateagatik ordaindutakoa ikastaroa eten denetik gelditzen den denboraren proportzioan itzuliko da.

3.17 POTENTZIALKI ARRISKUTSUAK DIREN ANIMALIAK UDAL ERREGISTROAN INSKRIBITZE.

%30 igoera

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euroak</u>
Arrikutsuak izan daitezkeen animaliak Udal Erregistroan inskribatze eta arrikutsuak izan daitezkeen animalien edukitzeagatik baimena emateagatik edo berritzeagatik	68,30

3.18 - DOKUMENTUAK ETA BESTE MATERIAL BATZUK.

%30 igoera

1.- Udaltzaingoaren zerbitzuak

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euroak</u>
Atestatuen kopia	18,75
Karabinak baimentzea	7,70
Hainbat txostenen kopia	7,70
Istripuen adostasuneko txostenen kopia	7,70
Trafikoko Istripuen atestatuen kopiak	79,45

2.- Fotokopiak

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euroak</u>
DIN A4 (bakoitzeko)	0,11
DIN A3 (bakoitzeko)	0,21
DIN A2 (bakoitzeko)	0,41
DIN A0 (bakoitzeko)	3,06

DIN A1 (bakoitzeko)	1,58
Kopia paper orrian (m2)	3,05
Bidaltzeagatik errekargua	5,41
Informatika zerrendak, bakoitzak	4,52

3. - ERREPOGRAFIA ZERBITZUA

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euroak</u>
Irudi digitalizatua	0,72
Internet bidez bidalitako irudia (<100kb)	0,72
100 kb gehiagorengatik, bakoitzarengatik	0,37
Zuri beltzean inprimatutako orria	0,09
Koloretan inprimatutako orria	0,12
Koloretan inprimatutako irudia	0,74
Koloretan inprimatutako irudia	0,74
Argazki paperean inprimatzea	0,74
CD-ROMean ematea	3,66

3.19 SUSTATZAILE PARTIKULARRAK UDALAREN KARTOGRAFIA EGUNERATZEAGATIK

%30 igoera

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euroak</u>
Urbanizazio proiektuak (ondoriozko azalera publikoa neurtzea)	
Lehengo hektarea edo zatia	1.019,10
Handik aurrerako bakoitza	631,40
Obra handiak egiteko lizentziak, eraikuntza berriko eraikinentzat emanak	
Lehengo hektarea edo zatia	1.019,10
Handik aurrerako bakoitza	631,40
Obra handiak egiteko lizentziak, kartografia aldatzea ekarriko duten eraisketak egiteko emanak	
Lehengo hektarea edo zatia	631,40
Handik aurrerako bakoitza	631,40
Obra handiak egiteko lizentziak, fatxaden lerroka durari edo bide publikoari nolabait eragiten dioten eraikin eraberritzeak egiteko emanak	
Obra handiak egiteko lizentziak, eraikinak altxatzeko emanak	225,90
Obra handiak egiteko lizentziak, eraikinak handitzeko emanak	339,35
Obra handiak egiteko lizentziak, gero eraikuntza lizentziarik eskatuko ez duten lur mugimendukuntza lizentziarik eskatuko ez duten lur mugimenduak egiteko emanak	348,80

Obra handiak egiteko lizentziak, jolas lekuak, aisialdiko tokiak edo antzekoak estaltzeko emanak	169,15
Obra handiak egiteko lizentziak ,zuinketak egiazatzeko ekipo topografikoa beharrezkoa duten obra handietarako lizentziak	357,20

4. IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOETAN IBILGETU, BERTATIK JASO ETA ONDOREN ZAINZAPEAN EDUKITZEKO ZERBITZU PUBLIKOAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

%30 igoera

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euroak</u>
a) Ibilgailua erretiratzea	
Bizikletak eta ziklomotoreak. Bakoitzarengatik	12,00
Motozikletak, trizikloak, moto-karroak eta antzeko beste ibilgailuak. Bakoitzarengatik	24,30
Turismoak eta 3.499 kg-ko Tara arteko ibilgailuak. Bakoitzarengatik	78,30
Kamionetak, kamioiak, traktoreak, erremolkeak, autobusak eta 3.500 Kg-ko Taratik gorako tonelajea duten ibilgailu bakoitzarengatik	165,50
b) Erretiratutako Ibilgailuen depositua eta zaintza	
Bizikletak eta ziklomotoreak. Egun edo zatiki bakoitzarengatik	5,25
Motozikleta, trizikloak, moto-karroak eta antzeko bestelako ibilgailuak. Egun edo zati bakoitzarengatik	8,40
Turimoak eta 3.499 kg-ko Tara arteko tonelajea ibilgailuak. Egun edo zati bakoitzarengatik.	15,75
Kamionetak, kamioiak, traktoreak, erremolkeak, autobusak eta 3.500 Kg-ko Taratik gorako tonelajea duten ibilgailuak. Egun edo zati bakoitzarengatik	33,60

5.- ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL JARDUERAK BURUTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK

5.1.- IBILGAILUAK ESPALOIETAN ZEHAR FINKEN BARRUALDERA SARTZEA ETA HORIEK BIDE PUBLIKOAN DUTEN APARKAMENDU ERRESERBA

%30 igoera

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euroak</u>
a) Udal jabetzako hesiak erabiltzea:	
Hesi metalikoak, unitate eta eguneko	0,40
Oholesiak, unitateko eta luzeenez ere 5 egunetarako	11,25
b) Udal zapalgailua erabiltzea, orduko	36,25
c) Desataskatzeko kanabera eta mahukak, unitate eta eguneko	
Dataskatzeko kanaberek	0,30
Mahukak	4,55
d) Udal kamioi.garabia erabiltzea (gidari eta guzti) orduko	82,50
e) Udal dunperra erabiltzea orduko	20,60

f) Udalaren oholtza alokatzea:	
100 m2tako oholtza eguneko	273,60
25 m2tako oholtza eguneko	56,40
Oholtza estalia, gehienez ere 5 egunez (5 eguneko epea gaindituz: 409,55€ gehiago eguneko)	3.396,55
g) Bandexa bibratzailearen errenta, orduko	15,55

5.2 IKUSKIZUNETARAKO SARRERAK

A) OHIKOAK

a. URTEROKO ZIKLOAK

- Haurrak.....2,70 €
- Helduak..... 5,30 €

b. IKUSKIZUN BEREZIAK (katxeta bez barne 6000 € artekoak)

- Haurrak.....3,70 €
- Helduak.....7,00 €

B) EZ OHIKOAK (katxeta bez barne 6000 €-tik gora dutenak)

- Haurrak.....8,00 €
- Helduak.....16,00 €

C) ZINEA

- Haurrak.....2,70 €
- Helduak..... 4,00 €

Bigarrena.- Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Ordenantzaren 7.1 artikulua aldatzea, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

1.-a) Interesatuak dagokien ekitaldiko martxoaren 1a baino lehen, edo, hala badagokio, urteko errolda behin betiko onartu baino lehen, behar bezala arrazoitutako eskaera egin ondoren, familiak ohiko bizilekutzat duen etxebizitzari dagokion zergaren kuota osoaren ondoko hobaria emango zaie c) apartatuan ezarritako baldintzak betetzen dituten familia ugariako subjektu pasibo titularrei:

- 3 seme-alaba dituen familia ugariari edo 2 dituenari, baldin eta horietako batek lanerako minusbaliotasun edo ezgaitasun aitortua badauka; edo aitak eta amak osaturiko familiari edozein lanerako minusbaliotasun edo ezgaitasun osoa eta bi seme-alaba badituzte, eta 100 m²ko edo azalera erabilgarri gutxiagoko etxebizitza badute: %50eko hobaria.

- 4 seme-alaba dituen familia ugariari, edo 3 dituenari, baldin eta horietakoren batek lanerako minusbaliotasun edo ezgaitasun aitortua badauka, eta 115 m²ko edo azalera erabilgarri gutxiagoko etxebizitza badute: %60ko hobaria.

- 5 seme-alaba edo gehiago dituen familia ugariari, baldin eta horietakoren batek lanerako minusbaliotasun edo ezgaitasun aitortua badauka, eta 150 m²ko edo azalera erabilgarri gutxiagoko etxebizitza badute: %90eko hobaria.

- Familia ugariko 2 kidek edo gehiagok lanerako minusbaliotasun edo ezgaitasunen bat aitortua badaukate, dagokien mailatik gora dagoen hurrengo kategoria hautatu ahal izango dute.

b) Hobaria subjektu zergadunaren ohiko etxebizitzaren gaineko zergaren kitapenari dagokion kuotari ezarriko zaio, eraikin edo etxebizitza multzo berean kokatutako garajea, edo, etxebizitzatik hurbilago dagoen garajea, eta trastelekua sartuz.

c) Hobaria izateko baldintzak:

c-1) Elkarbizitza-unitatearen hileroko diru-sarrerak ez dira izango indarrean dagoen lanbide-arteke gutxieneko soldataren %94a baino handiagoak kide bakoitzeko

c-2) Ondare-mugak

Ezingo dute artikulua honetan jasotzen diren salbuespen, hobari eta murrizpenik lortu beren ondareari buruz ondorengo arau hauek betetzen ez dituzten eskatzaileek:

a) Ondasun Higiezinak

Elkarbizitza edo famili unitatearen hiri-finken katastro-balioen baturak ez du gainditu behar *ehun eta berrogeita hamar mila euroko muga 165.000 €*

Elkarbizitza edo famili unitateak ezin du hiri ondasun baten baino gehiagoren jabe izan (jabetza soila, gozamen-eskubidea, barne). Dena den, arau honek ondoko salbuespenak izango ditu:

1. Ondasunak badira ohizko etxebizitza eta eraikin edo etxebizitza multzo berean kokatutako garajea, edo etxebizitzatik hurbilago dagoen garajea, eta trastelekua. Garaje eta trasteleku bakarrak
2. Ondasunak badira ohizko etxebizitza (garaje eta trasteleku) eta lokal komertzial bat, eta lokal honetan elkarbizitza edo famili unitatearen kideren batek bere jarduera ekonomikoa garatzen du. Kasu honetan interesatuak behar bezala frogatu beharko du bere jarduera ekonomikoa garatzeko lokala dela.
Lokala biltegia bada, interesatua langile autonomoa bada eta ekonomi jardueren gaineko zergaren horrela alta emanda badauka interesatuak, ez da kontuan hartuko lokal hau.
3. Ondasunak badira bi etxebizitzak, bata ohizkoa izanda, eta besteari buruz jabetza soila edukita, eta gozamen-eskubidea indarrean badago, (gozamenduna etxebizitza honetan erroldatuta egonda ere) eta 165.000 €ko muga gainditzen ez bada, ez da kontuan hartuta bigarren etxebizitza.

b) Ondare Hirigarriak: Ibilgailuak

1.- Famili edo elkarbizitza unitatearen kide bakar batek ere ezin du izan 13,99 zaldi fiskal edo gehiagoko potentzia duen trakzio mekanikoko ibilgailu baten jabe.

Hauek ez dira kontuan hartuko:

- 1.- Lanerako behar-beharrezkoak diren ibilgailuak. Kasu horietan, hala dela egiaztatzen duen agiria aurkeztu behar da.
- 2.- %65eko edo gehiagoko elbarritasun maila duten pertsonen gidatzeko egokitutako

ibilgailuak, elbarriarenak berarenak baldin badira.

3.- Aulki gurpilduneko elbarritasuna duten pertsonak eramateko erabiltzen diren ibilgailuak, zuzenean edo egokitu ondoren.

2.- Dena den, famili edo elkarbizitza unitateak ezin du ibilgailu baten baino gehiagoren jabe izan, aurreko idatz zatian sartutakoak barne. Hala ere, ez dira kontuan hartuko kamioak, traktoreak, trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdi-atoiak, eta autobusak.

Hirugarrena.- Administrazio zerbitzuak eskaini edo Udal Jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko Tasaren Ordenantzaren 7.5 c) apartatua aldatzea, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

7.artikulua:

5.- Ondare-mugak

Ezingo dute artikulua honetan jasotzen diren salbuespen, hobari eta murrizpenik lortu beren ondareari buruz ondorengo arau hauek betetzen ez dituzten eskatzaileek:

c) Ondasun Higiezinak

Elkarbizitza edo famili unitatearen hiri-finken katastro-balioen baturak ez du gainditu behar ehun eta berrogeita hamar mila euroko muga (150.000 €).

Familia ugarien kasuan hiri-finken katastro-balioen baturak ez du gainditu behar 165.000€ . Ondare balio hau kontuan hartu behar bada bakarrik aplikatuko da artikulua honen 2.c) apartatuak ezarritako hobaria, hau da, familia ugariantzako hobariak eta diru-sarreren taula.

Elkarbizitza edo famili unitateak ezin du hiri ondasun baten baino gehiagoren jabe izan (jabetza soila, gozamen-eskubidea, barne). Dena den, arau honek ondoko salbuespenak izango ditu:

1 1.-Ondasunak badira ohizko etxebizitza eta eraikin edo etxebizitza multzo berean kokatutako garajea, edo etxebizitzatik hurbilago dagoen garajea, eta trastelekua. Garaje eta trasteleku bakarrik

2

2.- Ondasunak badira ohizko etxebizitza (garaje eta trasteleku) eta lokal komertzial bat, eta lokal honetan elkarbizitza edo famili unitatearen kideren batek bere jarduera ekonomikoa garatzen du. Kasu honetan interesatuak behar bezala frogatu beharko du bere jarduera ekonomikoa garatzeko lokala dela.

Lokala biltegia bada, interesatua langile autonomia bada eta ekonomi jardueren gaineko zergaren horrela alta emanda badauka interesatuak, ez da kontuan hartuko lokal hau.

3.- Ondasunak badira bi etxebizitzak, bata ohizkoa izanda, eta besteari buruz jabetza soila edukita, eta gozamen-eskubidea indarrean badago, (gozamenduna etxebizitza honetan erroldatuta egonda ere) eta 150.000 €ko edota 165.000 €koa familia ugarien kasuan, muga gainditzen ez bada, ez da kontuan hartuta bigarren etxebizitza

Laugarrena.- Administrazio zerbitzuak eskaini edo Udal Jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko Prezio Publikoen Ordenantzaren 3. eranskinaren, Haur Eskolako Jangela izenekoaren murrizpenak aplikatzeko 5. baldintzak aldatzea, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

5.- Ondare-mugak

Ezingo dute artikulua honetan jasotzen diren salbuespen, hobari eta murrizpenik lortu beren ondareari buruz ondorengo arau hauek betetzen ez dituzten eskatzaileek:

d) Ondasun Higiezinak

Elkarbizitza edo famili unitatearen hiri-finken katastro-balioen baturak ez du gainditu behar ehun eta berrogeita hamar mila euroko muga (150.000 €).

Familia ugarien kasuan hiri-finken katastro-balioen baturak ez du gainditu behar 165.000 € .

Elkarbizitza edo famili unitateak ezin du hiri ondasun baten baino gehiagoren jabe izan (jabetza soila, gozamen-eskubidea, barne). Dena den, arau honek ondoko salbuespenak izango ditu:

4. Ondasunak badira ohizko etxebizitza eta eraikin edo etxebizitza multzo berean kokatutako garajea, edo etxebizitzatik hurbilago dagoen garajea, eta trastelekua. Garaje eta trasteleku bakarrak
5. Ondasunak badira ohizko etxebizitza (garaje eta trasteleku) eta lokal komertzial bat, eta lokal honetan elkarbizitza edo famili unitatearen kideren batek bere jarduera ekonomikoa garatzen du. Kasu honetan interesatuak behar bezala frogatu beharko du bere jarduera ekonomikoa garatzeko lokala dela.
Lokala biltegia bada, interesatua langile autonomia bada eta ekonomi jardueren gaineko zergaren horrela alta emanda badauka interesatuak, ez da kontuan hartuko lokal hau.
6. Ondasunak badira bi etxebizitzak, bata ohizkoa izanda, eta besteari buruz jabetza soila edukita, eta gozamen-eskubidea indarrean badago, (gozamenduna etxebizitza honetan erroldatuta egonda ere) eta 150.000 €ko edota 165.000 €ko, famili ugarien kasutan, muga gainditzen ez bada, ez da kontuan hartuta bigarren etxebizitza.

Bostgarrena.- Erabakia 30 egunez jendaurrean jartzea, erreklamazioak edo oharra egin ahal izateko.

Seigarrena.- Hartutako erabakia jendaurrean egondako arauko epean inolako erreklamazio edo oharrik egiten ez bada behin betiko bihurtuko da.

Zazpigarrena.- Alkate andreari almena ematea erabakiaren testua eta tributuak arautzen dituzten ordenantzak baterabilteko, udalak onartutako aldaketa guztiak sartuz.

11.- ORONA S. COOP-EK, ORONA EIC S. COOP-EK ETA ORONA_FUNDAZIOAK EGINDAKO ERAIKUNTZA INSTALAZIO ETA OBREN GAINKO ZERGAREN HOBARI – ESKAERA. - Orona S COOP-k, Orona eic S COOP-k eta Orona-Fundazioak, 10.5 sektorean burutuko duten ORONA IDeO, INNOVATION CITY proiektuaren obra interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta izateko eskatzen du eta, horrela, dagozkion Erainkuntza, Instalazio eta Obren inguruko Zergaren hobaria ematea ere eskatzen du.

Interes bereziko edo udal onurako izendapena emateko oinarriak beren eskabidean adierazten dituzte.

Aurkeztutako eskabidean adierazten da proiektuan hiru eraikuntza desberdintzen direla: Orona ZERO, 3A Centro Tecnológico eta Fundación Orona. Azpimarratzen dute Fundación Oronak parte hartuko duela eta 10.5 sektore honen Partzeletan irabazteko asmorik gabeko jarduerak burutuko dituztela, eta Fundación Oronak garatu dituen jarduera hauen helburuak eta erabilerak, horien artean, izango direla formakuntza, ikerkuntza, eta zabalkuntza.

Kontu-hartzailetzako teknikariak egin duen txostenaren arabera, Ordenantza Fiskalak 5.artikuluaren 4.4 atalak hau ezartzen du:

Eraikuntzek, instalazioek edo obrek 100eko 95era arteko hobaria izango dute, interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean arrazoi sozial, kultural edo historiko-artistikoengatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

Gauzak horrela, Udal Batzarrak hartu behar du erabakia aurkeztutako proiektua interes berezikoak edo udal onurakoak dela uste badu.

Bestalde, txosten horretan adierazten da ORONA IDEO, INNOVATION CITY proiektuaren aurkeztuko exekuzio materialeko aurrekontua 49.405.187,72 €-koa dela. Proiektu hau fase desberdinetan burutuko da 2011tik 2014a bitartean. Horregatik, obra burutzeko fase bakoitzean hirigintza baimena eskatzen denean, fase horren aurrekontua kontuan hartuta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren likidazioa onartuko da. Gauzak horrela, aitortpena onartuz gero, Udal Batzarrak hobariaren ehunekoak erabaki beharko du, aitortpenaren onarpenarekin batera.

ORONA IDEO, INNOVATION CITY proiektuaren obra burutzeko fase bakoitzari emango zaion hirigintza baimenaren ondorioz sortuko diren zergen likidazioei aplikatuko zaie Udal Batzarrak erabakitako hobariaren ehuneko hori

Aztertu da Ogasun eta Ondare – Kontuetarako Batzorde Bereziak 2011eko urriaren 19an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da Euskal Sozialisten abstentzioarekin:

ORONA IDEO, INNOVATION CITY izeneko proiektua, 49.405.187,72 €ko exekuzio materialeko aurrekontukoak, *interes berezikoak edo udal onurakoak* IZENDATZEA. Aitortpenak ez du proiektuaren aurrekontu osoan eraginik sortuko. Izan ere, aitortpen honen oinarria da proiektu horretan Fundacion Oronak garatuko dituen irabazi asmorik gabeko jardueren helburuak eta erabilerak, horien artean, formakuntza, ikerkuntza, eta zabalkuntza. Hori guztia proiektu bakarrean jasota dator.

Horren ondorioz, aurkeztutako obraren proiektu osotik %25 jotzen dugu bereziki interes berezikoak edo udal onurakoak dela baloratzen dugu. Horregatik, sortuko den eraikuntza, Instalazio eta Obren Zergaren kuotaren gainean %25eko hobaria onartzea proposatzen dut.

Bestalde, eta kontuan hartuta proiektuhau fase desberdinetan burutuko dela, 2011tik 2014a bitartean, ORONA IDEO, INNOVATION CITY izeneko proiektuaren fase bakoitzean eskatzen diren hirigintza baimenen ondorioz sortzen diren eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren likidazioei aplikatuko zaie %25eko hobaria kuotaren gainean.

12.- MOZIOA, EUSKAL SOZIALISTEN UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKOA, UDALEKO EGOITZAREN DEFIZITARI BURUZKOA. Chica jaunak (Euskal Sozialistak) mozio hau aurkeztu du udal egoitzaren defizitari buruz:

“JUSTIFIKAZIOA

Uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuak, gizarte-zerbitzuen alorreko egitekoak zehazteko denak, hau dio 3. artikuluan Foru Aldundien zereginei buruz:

“1. GIZA-TALDE BEREZIENTZAKO ZENTROAK ETA ZERBITZUAK:

Foru Aldundiek gizta-talde berezientzako zentro eta zerbitzuak bermatu beharko dituzte. Horiek biztanleen beharrei erantzuteko adinako edukiera eduki beharko dute, gizarte-zerbitzu bereziak diren

aldetik. Horretarako eskumena ematen dio Gizarte-zerbitzuei buruzko 5/1996 Legearen 11.3 artikulua.

60 urtetik gorako pertsonen kasuan, laguntza behar duten pertsonenganako atentzioa eta zainketa Foru Aldundiei dagozkie. Halaber, ezgaitasunen bat duten edo laguntza behar duten 0 eta 59 urte bitarteko pertsonenganako atentzioa eta zainketa ere Foru Aldundiei dagozkie.

LEHEN XEDAPEN IRAGANKORRA

Finantzaketa banatzeko gehieneko epea. Dekretu honetan gizarte-zerbitzuen alorreko egitekoak zehaztu direnez, herri administrazio eskudunek 2002ko abenduaren 31ra arteko epea izango dute instituzioen artean finantzaketa banatzeko, gizarte-zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.”

Gaur gaurko, Gizarte Zerbitzuen Lege berria indarrean eta lege horren garapenaren negoziazioa martxan daudelarik, 155/2001 dekretua bete gabe dago, laguntza behar duten 60 urtetik gorako pertsonen egoitzen doikuntza finantzarioari dagokionez.

Horrek esan nahi du Gipuzkoan 16 udal egoitzek 8 milioi eurotik gorako defizita dutela eta udalok, diru-sarrerara publiko propioen bidez, guri ez dagokigun defizit bat ari garela gure gain hartzen.

Defizit horri aurre egin behar izango ez bagenio, baliabide ekonomiko horiek hernaniarrentzat lehentasunezkoak ere badiren gizarte izaerako bestelako gauzetarako erabili ahal izango genituzke.

Kasu horretan dago, hain justu, Santa M. Magdalena zaharren egoitza. Zentroaren benetako kostu unitarioa 119,88 €-koa da plaza eta eguneko, 2009ko datuekin, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 51,93 € ordaintzen ditu plaza eta eguneko erabiltzaile autonomo bakoitzarengatik, 63,23 € plaza eta eguneko laguntza behar duen erabiltzaile bakoitzeko eta 79,04 € plaza eta eguneko laguntza-behar handiko erabiltzaile bakoitzeko. 2009ko ekitaldian atenditutako erabiltzaileen tipologiaen arabera, egoitza honetan, plaza eta eguneko batez besteko kostua 73,65 €-koa izan beharko luke eta, horrenbestez, kostuen arteko aldea 46,23 €-koa da plazako eta eguneko, hots, kostua askoz ere handiagoa da.

Gipuzkoako sozialistek lau puntuz osatutako proposamena aurkeztu dugu Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Onartu da 6 hilabeteko epean Foru Aldundiak Gipuzkoako udal egoitzen defizitaren kontua konpontzeko proposamen zehatz bat aurkeztea, negoziaketekin berriz hastea Batzorde Politikoan eta Egoitzen Batzordean, eta Foru Aldundiak Gizarte Zerbitzuen Legeak ezarritakoa ahal bezain azkarren betetzea eta adinduentzako egoitzak bere gain hartzea.

Baina onartu dena ez da aski, zeren horrek behartzen gaitu krisi garai honetan hilabetea joan hilabetea etorri legez udalaren eskumenekoa ez den zerbitzu batengatik gastu publiko handi bati aurre egin behar izatera.

Sozialistok joan de legegintzaldian EUDELen batzorde bat eratzea babestu genuen, Foru Aldundiak ordaintzen duenaren eta zerbitzuak benetan balio duenaren arteko defizita duten 16 udal egoitzek horri buruz eztabaida zezaten eta, hala, EUDELeK agiri tekniko bat aurkeztu zuen arazo honi hainbat irtenbide bilatzeko.

Horiek guziak horrela, PSE-EE Udal Taldeak honako puntu hauek aurkezten ditu onar daitezen:

Lehena.- Hernaniko Udalbatzak Udalak bizi duen egoera onartezina salatzen du, izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak legeak ematen dion eskumena bere gain hartzen ez duenez eta, gainera, erabiltzaile bakoitzak plazako eta eguneko duen kostu erreala ordaintzen ez duenez, Hernaniko Udalak egin behar dio aurre Santa Maria Magdalena Zaharren Egoitzaren defizitari.

Bigarrena.- Hernaniko Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Santa Maria Magdalena Zaharren Egoitzako defizita estaltzeko partida ekonomiko nahikoa presta dezala gehienez ere bi hilabeteko epean.

Hirugarrena.- Hernaniko Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio Foru Aldundiak egoitzaren defizita estali ondoren, kopuru hori gastu sozialerako erabil dezala, lehentasunezko helburu sozialak zein izango diren talde politiko guztien artean adostuta."

Alkateak (Bildu) mozio alternatibo hau aurkeztu du:

"Euskal Sozialistak udal taldeak dioen moduan, 15/2001 Dekretuaren lehen xedapen iragankorrek finantzaketa banatzeko gehieneko epea zein den ezartzen zuen: "herri administrazio eskudunek 2002ko abenduaren 31ra arteko epea izango dute instituzioen artean finantzaketa banatzeko, gizarte-zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera".

Hamar urte igaro dira dekretu hori EHAAn argitaratu zenetik (2001-08-27), eta orduz geroztik laugarren legegintzaldian gaude. Eta Gipuzkoako Foru Aldundian BILDUK gobernatzan duen honetan izan ezik, gobernu beti EAJ-PNV-ren esku egon da, aurrekontuak onartzerakoan beti PSEren berriazko laguntza izan duelarik eta, igaro den denbora ikusita gainera, lege xedatutakoa bete dadila exijitu gabe, antza, foru korporazio berriak eskatzen duen moduan, eta, gainera, espresuki indargabetutako lege baten garapen-dekretuan oinarriturik.

Gaur egun, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, hau ezartzen du: "Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek lege hau indarrean sartu eta urtebeteko epean ekingo diote lege honetan ezarritako eskumenen banaketa benetan gauzatzeari" eta "Lege honetan egiten den eskumen-banaketaren ondorioz, beharrezko finantza-doiketa egingo da Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen artean, 22. artikuluan aurreikusita dagoen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoa autonomia-, foru- eta udal-mailan hornitzeko finantzaketa nahikorik bermatzeko" "Eskumen-banaketa horrek eta finantza-doiketa horrek ez du ekarri ahal izango, inola ere, legea indarrean jartzean zeuden prestazio eta zerbitzuen intentsitate- eta estaldura-mailak jaistea". Hau da, ia bi urte pasa dira eskumen-banaketa eta finantza-doiketa eginak egon behar zutenetik, baina ez dira gauzatu, eta gogorarazi behar dugu 2009. urteaz geroztik Alderdi Sozialista dela Eusko Jaurlaritzan dagoena, eta horrek ere ez du egin, eta gure ustez ez betetze hori ezin zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko gobernu talde berriari leporatu, nahiz eta orain bere gain hartu beharko duen gaur egungo egoerari irtenbide bat emateko erantzukizuna.

Horrengatik guztiarengatik, Hernaniko Udalbatzak

Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio sei hilabeteko epean aurkez dezala gaur egungo udal eta foru gizarte zerbitzuak berrantolatze eta birfinantzatzeko proposamenen bat, bereziki udal egoitzak kudeatzen dituzten udalerriak kontuan hartuz, eraginda dauden udalekin elkarriketa prozesu bati ekiteko helburuz."

Honi buruzko hizketaldi baten ondoren aurkeztutako bi mozioen bozketa egin du alkate-lehendakariak. Hona hemen emaitza:

- Euskal Sozialistek aurkeztutako mozioa:

* Aldeko botoak: 4 (2 Euskal Sozialistak, 2 EAJ-PNV).

* Kontrako botoak: 8 (Bildu).

* Abstentzioak: bat ere ez.

MOZIOA BAZTERTU EGIN DA.

- BILDUK aurkeztutako mozioa:

* Aldeko botoak: 10 (8 Bildu, 2 EAJ-PNV).

* Kontrako botoak: 2 (Euskal Sozialistak).

* Abstentzioak: bat ere ez.

MOZIOA ONARTU EGIN DA

13.- MOZIOA, EUSKAL SOZIALISTEN UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKOA, UDAL HONEK GIPUZKOAKO HONDAKINEN PARTZUERGOARI DAGOKIONEZ DITUEN KONPROMISO EKONOMIKO-FINANTZARIOEI ETA BERE INBERTSIO PLANAREN GELDITZEARI BURUZKOA. Morcillo andreak (Euskal Sozialistak) mozio hau aurkeztu du udalak Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoari dagokionez dituen konpromiso ekonomiko-finantzarioei eta bere inbertsio planaren gelditzeari buruz.

Morcillo andreak (Euskal Sozialistak) mozio hau aurkeztu du udalak Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoari dagokionez dituen konpromiso ekonomiko-finantzarioei eta bere inbertsio planaren gelditzeari buruz.

“2006an Gipuzkoako Lurralde osoko hondakinen mankomunitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki zuten, hiru urtez irtenbide baten bila ibili ondoren, Hondakinen Partzuergoa eratzea, erakunde horiek guztiak hiri hondakinen kudeaketaren inguruko diagnostikoa egiteko lanean elkartuko zituena, 2002an dagoeneko Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plan Integralean jasota zetorren diagnostikoa, alegia, eta, bereziki, etorkizunerako hondakinen kudeaketa eredu bat definitzeko, tratamenduaren nondik norakoak ezarriko zituena, beti ere hondakinak murriztu, berrerabili eta birziklatzearen printzipio hierarkiakoak gidari izanda. Horretan egin dituzte ahaleginik handienak bai erakundeek eta baita herritarrek ere, eta, emaitza gisa, Gipuzkoak lortu ditu Espainia osoko birziklatze mailarik altuenak. Baina etxeetako hondakin atal desberdinak nola jaso behar diren eztabaida faltsua da baldin eta horrekin erakutsi nahi baldin badugu alde aurreko ahalegin hauek guztiak egin ondoren geratzen diren gainerako hondakinak ezabatzeko plantak ez direla beharrezkoak. Edo, beste era batera esanda, atez ate izenez ezagutzen den hondakin bilketa garestiagoa da, eta ez hori bakarrik, gainera herritarrentzako osasungaitza eta deserosoagoa da. Are gehiago, errausketari dagokionez hutsala da.

Hori dela eta, akordio hura izenpetu zuten entitateek onartzen zuten aipatutako politikak aplikatzeko beharrezkoak ziren azpiegiturak eraikitzea, eta, zehazkiago esanda, etxeetan eta produkzio handiko zentroetan sailkaturik jasotako atal organikoa konpostatzea eta errefusa izeneko atalaren balorizazio energetikoa egitea, hau da, ezinbestean sortzen diren hondakinak, edo birziklatu nahiz konpostatu ezin izan direnak, erretzea, eta bitartean aldi baterako irtenbide bat zehaztea, hondakin horiek eskualdez gairako zabortege kontrolatuen bidez kudeatzeko, erraustegiaren azpiegitura horiek bukatuak egon arte. Azpimarratu beharra dago azken lau urteetan Gipuzkoan martxan zeuden zabortegeak handitzeko obrak egin izan direla, zehazki Urtetan, Sasietan eta Lapatxen. Beste akordio batera ere heldu ziren: San Markoko zabortegea betirako ixtea. Hartara, Donostialdeko hondakinak gainerakoetara eramaten dira solidarioki. Nolanahi ere, gaur egun gure lurraldean egunero-egunero sortzen den hondakinen bolumenak zabortege horien isurketa-ahalmena gainditzen du eta,

horrenbestez, 25.000 tona urtero Igorreko (Bizkaia) zabortegira eraman behar izaten dira. Eta oso argi eduki behar dugun gauza da dagoeneko ezin izango direla oraingo zabortegiak gehiago handitu, eta, beraz, zaborrak nora eraman arazo larri bilakatzen zaigula.

Era berean, partzuergoan sartuta dauden erakundeek aurreikusten zuten Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoa eta haren kudeaketa sozietatea eratzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Administrazioek hiri hondakinen kudeaketaren gaiarekin lotuta dituzten beharrei era bateratuan eta eraginkorrean erantzuteko administrazio-antolakuntza egokirako formula gisa, abiapuntutzat hartuta hiri hondakinak kudeatzeko legezko erantzukizuna eta obligazioa udalena dela hasiera batean, lurralde mailan mankomunitateetara pasa dena.

Honen azpian lurraldeen arteko elkartasun printzipioa zegoen, eta parte-hartzaile guztien arteko errekonozimendua eta konfiantza, eta hori guztia osatzera zetorren kooperazio ekonomiko eta finantzarioa. Eta, oinarrian, Gipuzkoako Foru Aldundiak inbertsio plan bati aurre egiteko behar ziren funtsen %33 (itzuli beharrik gabekoak) emango zituela, guztira 378 milioi euro. Gainerakoa udalerrien mankomunitateek hartuko zuten beren gain, tratamenduko tona bakoitzarengatik aldian-aldian tarifa bat ordainduz, 20 urtera begirako finantzaketa kostuak hartuz.

Gaur gaurkoz, GHK-k 46 milioi euro inbertitu ditu eta, obren erritmoaren ondorioz, hilero-hilero milioi bat euroko obra exekuzioko ziurtapenei dagozkien fakturak ordaintzen ari dira. Diru horretaz GFAK 26.5 milioi aurreratu ditu dagoeneko, hala Inbertsioen Europako Bankuarekin nola hainbat banketxe pribaturekin izenpetutako kredituaren 263 milioietatik 10 erabili dira, eta gainerako 9,5 milioiak dagoeneko Gipuzkoarrek ordaindu dituzte hondakinen tasak azken urteetan izandako igoeraren bidez.

Kontuan izan behar da, gainera, kreditu entitate hauekin izenpetutako finantzazioa egitasmo finantzarioa dela eta, horrenbestez, ezin da, inola ere, eman zirenerako ez den beste zerbaiterako erabili. Beste era batera esanda, inbertsio planean aldaketaren bat eragiten duten kudeaketa-plan aldaketak egiteak, kreditu entitateekiko konpromisoa bukatutzat ematen du. Horrek bide emango lieke beren klausulak gauzatzeko eta utzitako dirua, horren finantzaketa kostuak eta interes tipoaren estaldurak erreklamatzeko.

Azkenik, orain arte egindako lanak azpimarratu behar dira: Zubietan dagoen Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa zentroko sarbideak eta lur mugimenduak, Lapatxeko konpostatze plantak, Urteta, Sasieta eta Lapatxeko zabortegiak handitzeko lanak, garbiguneak... Bai eta kontratuak bertan behera uztearen kostuak ere, hala bola aurretratatamendua eta errauskailua eraikitzearena, GHKZ-ren lur mugimenduaren gainerakoa, edo desjabetze espedienteak etetea eta lurrak itzultzea.

Kontzeptu horiek guztiak, eta horrekin batera, GHK-ren hemendik 2014ra arteko ordainketa obligazioak, guztira, obrak eteteagatik, 159.557.000 euro inguruko kostua dakar, partzuergoan sartutako erakundeen artean modu subsidiarioan ordaindu beharko direnak asanbladan daukaten pisuaren arabera.

Horiek guztiak horrela, PSE-EE udal taldeak mozio hau aurkezten du:

MOZIOA

Lehena.- Hernaniko Udaleko osoko bilkurak guztiz babesten ditu Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plan Integralean eta haren garapen dokumentuan jasotako planak eta, bereziki, hondakinen tratamendurako planten inbertsio plana, haren egutegia eta finantzaketa plana.

Bigarrena.- Hernaniko Udaleko osoko bilkurak guztiz baztertzen du hondakinen kudeaketarako aurreikusita dauden planak bertan behera uztea, hartutako konpromisoak kontuan hartuta, sekulako

zorretan gelditzea ekarriko duelako eta gure herriko hiri hondakinen kudeaketari dagokionez, oinarri-oinarrizko gaia izanik ere, ziurgabetasun egoeran murgilduko garelako.

Hirugarrena.- Hernaniko Udaleko osoko bilkurak Gipuzkoako zabortege guztiak Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plan Integralean eta haren garapen dokumentuan jasotako tratamendu planta guztiak eraikitzen direnean ixtearen aldekoa postua egiten du. Era berean, prebentzio politikei lehentasuna ematen jarraituko die, berreskura daitezkeen hondakin atal guztiak erraustea saihestu eta birzikla eta berrerabil daitezela bultzatuz. Halaber, kalean jarritako edukiontzi itxien bidezko hondakin bilketaren aldeko apustua egiten du Udalbatzak, horixe jotzen baitu etxeetako hiri hondakinak biltzeko modurik egokiena.”

Amenabar jaunak (Bildu) hau esan du:

Bildu kideek PSE-EE taldeak Irailaren 27an udaletxe honetan aurkeztutako mozioari ezezko erabatekoa erantzun diogu ondorengo arrazoiengatik:

Gure taldean murrizte, berrerabiltze eta birziklatze politiken alde gaude erabat, hain zuzen, gure ustez ildo horiek aurrera eraman ezker hondakin kudeaketa jasangarriago bat lortuko genuke, ingurumena eta osasunaren aldetik eta baita ekonomikoki ere.

Gaikako bilketa eraginkor bat aurrera eraman ezker birzikla ezina den atala gutxituko dugu, Hernaniko herriak azken urte honetan frogatu duen bezala. Hori horrela izanik, ez dugu uste errauskailua bezalako azpiegitura bat beharrezkoa denik. Ez dugu ukatuko errefusarentzat zabortegeirik behar ez denik, baina era berean balizko erraustegi horrek sortzen dituen erraustak oso toxikoak direla azpimarratu nahi dugu. Azken erraust hauentzat ere zabortege bat beharko da, teknikoki askoz garesti eta arriskutsuagoa izango dena.

PIGRUG planean aipatzen diren konpostatze plantetatik bakarria egin da oraingoz eta Bilduko kideen ustez hau erabat salagarria da, bertan esaten den moduan gure lehentasuna birziklatzea baldin bada.

Arduragabekeria izugarria iruditzen zaigu azpiegitura handi bat egitea Gipuzkoako ingurumena osasuna eta ekonomiari bizkarra emanda. Gure ustez bidegabekeria hau egin ordez, askoz ere egokiagoa da ondo aztertzea lurraldean hondakinen kudeaketari zein erantzun emango zaion. Era berean salagarria eta kezkarria iruditzen zaigu funtziotan egon den GHK-ko zuzendaritzaren jarrera, azken unean kalte ordainak suposatuko dituen erabakiak hartuz.

Aukera hau baliatu nahi dugu adierazteko, Hernaniarrok azken urte honetan frogatu dugula atez ateko bilketa sistema oso eraginkorra dela birziklatze tasa oso altuak lortu eta era berean errefusa kantitatea gutxitzeko.

Honela berresten dugu gure konpromisoa sistema honen garapenean, eta dei egiten diegu herritarrei, alderdi guztiei eta beste erakundeei, gaikako bilketaren inguruan egin ditzaketen ekarpenak egitera.

Horren ondotik bilera eten egin da eta bertaratutako zenbait herritarrek eta udalbatzako kide batzuk hitz egin dute.

Bilera berriz ekin zaiolarik, Euskal Sozialistek aurkeztutako mozioaren bozketa egin du alkate-lehendakariak. Hona hemen emaitza:

- * Aldeko botoak: 4 (2 Euskal Sozialistak, 2 EAJ-PNV).
- * Kontrako botoak: 8 (Bildu).
- * Abstentzioak: bat ere ez.

MOZIOA BAZTERTU EGIN DA.

14.- ESKAERAK ETA GALDERAK.– Bilerari eten egin da eta bertaratutako zenbait herritarrek eta udalbatzako kide batzuk hitz egin dute.

Bilerari berriz ekin zaiolarik, alkateak honako adierazpen hau aurkeztu du erabaki proposamen gisa:

Badira urte asko Euskal Herrian gatazka sakona bizi duguna.

Badira hilabeteak gatazka hau bideratzeko gertaerak bizitzen ari garenak. Denak ezin hemen aipatu baina bai azken aste honetakoak.

Pasa den astelehenean Donostiako Aiete Jauregian Nazioarteko Bake Konferentzia egin zen. Bertan, munduko hainbat gatazka bideratzen esperientzia duten adituak elkartu ziren. Hauek 5 puntuko agiria kaleratu zuten Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa bideratzeko bide orri gisa.

Pasa den ostegunean, ETAK agiria kaleratu zuen behin betiko jardura armatuaren amaiera iragarri. Hauxe da Donostiako Konferentziaren agiriak jasotzen duen lehen puntua.

Orain agiriaren bigarren puntura pasatzeko garaia da: Espainiar eta Frantziar estatuak gatazkaren ondorioei buruz hitz egitea onartu beharko lukete.

Bitarte horretan guri dagokigu Bake Konferentziaren 4. puntua lantzea. Indar politikook, beste eragileekin batera, bakea iraunkorra izan dadin lanean aritzea.

Agiri honen bidez, Hernaniko Udaleko Udalbatzak:

- 1.- Hernaniko Udaleko Udalbatzak bat egiten du Donostiako Bake Konferentziaren adierazpenarekin.
- 2.- Hernaniko Udaleko Udalbatza osatzen dugun indar politikook konpromisoa hartzen dugu gure lana eta ahalegina egiteko gatazkaren konponbidearen prozesuan.

Morcillo andreak (Euskal Sozialistak) hau esan du:

Ez gara proposamena baloratzen hasiko, udalaren eremutik harago doala uste dugulako, eta, gure ustez, gai honetan lehendakariak ari behar duelako bere indar politiko guztiekin.

Gogora ekarri nahi ditut ETAK indarkeria utziko zuela iragarri zuenean Patxi Lopez lehendakariak esandako hitzak:

Heldu da egun handia. Euskaldunon amesgaiztoa amaitu da.
ETAK bere porrota ortu du. Eta hau demokraziaren eta askatasunaren garaipena da.

Terrorismoaren biktima oro gogoratu nahi ditugu gaur. ETAK bere presentzia lapurtu zigun. Baina orain, euren memoria gure etorkizunaren zutabe bihurtzen da.

Demokraziak totalitarismoari irabazi dio. Eta hau Euskal gizarte guztiaren garaipena da. Gure askatasuna lortu dugu.

Azkenik, aurkeztutako proposamenaren bozketa egin du alkate-lehendakariak. Hona hemen emaitza:

- * Aldeko botoak: 10 (8 Bildu, 2 EAJ-PNV).
- * Kontrako botoak: bat ere ez.
- * Abstentzioak: 2 (Euskal Sozialistak).

PROPOSAMENA ONARTU DA.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 19:55 orduetan bilera bukatutzat eman da eta nik, idazkariordea naizenez, ziurtatu dut.